

HEZKIDETZARAKO BIDEAN: GENERO ESTEREOTIPOAK LEHEN HEZKUNTZAN DESERAIKITZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Fernández Cortazar, Aritz

ZUZENDARIA: Gutiérrez Ajamil, Estibaliz.

2021eko iraila

LABURPENA

Egungo hezkuntzak genero desberdintasunak normalizatzen ditu eta aniztasuna bermatzeko legeak dauden arren, praktikara eramateko zailtasunak egon ohi dira, eskoletan eredu sexistak transmititzen ari dituztelako eta gizartean ematen ari denaren erreprodukzio txiki bat egiten dutelako. Izan ere, klaseak prestatzeko erabiltzen diren baliabideetan emakume erreferente gutxi aipatzen dira, beraz, genero estereotipoak eta rola presente daude oraindik. Horretarako, sexismoa nola adierazten den berrikustea beharrezkoa da, ikasleen etorkizun hurbilean ondorio larriak eragin ditzaketelako. GrAL honen helburuak hurrengoak dira: adierazpen grafikoa medio hurrek genero estereotipoak garatu dituzten jakitea; horiek ekiditeko eta deseraikitzeo unitate didaktikoa diseinatzea eta praktikara eramatea, hezkidetzan hazi daitezen; eta zehar-kompetentziak lantzen diren aztertzea. Atal praktikoa Vitoria-Gasteizko eskola batean burutu da, lehenengo mailako gela batean. Eraitzen analisiak sozializazio-prozesuek hurrengan eragiten dutela baieztatzen da, norbanakoaren sexuarekin bat ez datozen ezaugarriak deuseztatuz. Sexuen artean parekotasunak eman daitezen, ikasleei ikusizko kulturak eta ingurukoek mutil edo neska izateagatik ezartzen dizkieten neurriak zeintzuk diren azaldu beharko litzaieke, horiek identifikatzeko eta egun ematen diren egoerei kritika egiteko gai direlako, adierazpen grafikoa eta hitzen bidez.

Hitz gakoak: emakume erreferenteak, adierazpen grafikoa, genero estereotipoak, hezkidetzak.

RESUMEN

La educación actual normaliza las desigualdades de género y aunque existen leyes para garantizar la diversidad, suele haber dificultades para llevarlas a práctica, ya que están transmitiendo modelos sexistas en las escuelas y hacen una pequeña reproducción de lo que se está dando en la sociedad. De hecho, en los recursos utilizados en el aula apenas aparecen mujeres referentes, por lo que los estereotipos y roles de género siguen estando presentes. Para ello es necesario revisar cómo se manifiesta el sexismo, ya que puede provocar graves consecuencias en el futuro próximo del alumnado. Los objetivos de este TFG son: conocer si los niños y niñas han desarrollado estereotipos de género a través de la expresión gráfica; diseñar y llevar a la práctica una unidad didáctica para evitarlos y desconstruirlos para que crezcan en coeducación; y analizar si se trabajan las competencias transversales. La parte práctica se ha desarrollado en una escuela de Vitoria-Gasteiz, en una clase de primero de primaria. El análisis de los resultados confirma que los procesos de socialización afectan a los niños, eliminando las características que no se corresponden al

sexo de cada uno de ellos. Para que haya semejanzas entre los sexos, habría que explicar al alumnado cuáles son las medidas que la cultura visual y el resto de seres humanos les aplican por ser chicos o chicas, ya que son capaces de identificarlas y de criticar las situaciones que se dan en la actualidad mediante expresiones gráficas y verbales.

Palabras clave: mujeres referentes, expresión gráfica, estereotipos de género, coeducación.

ABSTRACT

Current education normalises gender inequalities and although there are laws that guarantee diversity, there are often difficulties in putting them into practice, as they are transmitting sexist models in schools and do nothing more than reproduce what happens in society. In fact, in the resources used in the classroom there are hardly any female references, so gender stereotypes and roles are still present. Therefore, it is necessary to review how sexism manifests itself, as it can have serious consequences in the near future of students. The objectives of this FDP are: to find out whether boys and girls have developed gender stereotypes through graphic expression; to design and put into practice a didactic unit to avoid and deconstruct them so that they grow up in coeducation; and to analyse whether they work on transversal competences. The practical part was carried out in a school in Vitoria-Gasteiz, in a first year primary school class. The analysis of the results confirms that the socialisation processes affect the children, eliminating the characteristics that do not correspond to the gender of each child. In order for there to be similarities between the sexes, it would be necessary to explain to pupils what measures visual culture and the rest of human beings apply to them because they are boys or girls, as they are capable of identifying them and criticising situations that occur at present through graphic and verbal expressions.

Keywords: feminine references, graphic expression, gender stereotypes, coeducation.

AURKIBIDEA

1. Lanaren justifikazioa	5
2. Sarrera	6
3. Marko teorikoa	7
3.1. Sozializazio-prozesua genero estereotipoen sortzaile?	7
3.1.1. <i>Familia</i>	8
3.1.2. <i>Lagunak edo berdinen arteko harremanak</i>	9
3.1.3. <i>Komunikabideak</i>	10
3.2. Eskola: hezkidetzeta eta curriculum	11
3.3. Irudia eta marrazkigintza baliabide pedagogiko gisa	14
4. Ikerketa galdera eta helburuak	16
5. Metodoa	17
5.1. Parte-hartzaileak	17
5.2. Prozedura	17
5.3. Ikerketa tresnak eta emaitzen analisia	19
6. Emaitzak	21
6.1. Irudien analisia	21
6.1.1. <i>Generoaren errepresentazio grafikoa</i>	21
6.1.2. <i>Maitasun erromantikoa</i>	25
6.1.3. <i>Lanbideak generoaren arabera</i>	27
6.1.4. <i>Emakume erreferenteetan oinarritutako horma-irudia</i>	29
6.2. Hitzen bidezko azalpenen analisia	30
6.2.1. <i>Etxeko zereginak generoaren arabera</i>	30
6.2.2. <i>Emakume erreferenteak</i>	31
7. Ondorioak	33
8. Mugak eta hobekuntza proposamenak	37
9. Bibliografia	39
10. Eranskinak	42
10.1. Arazoen zuhaitza	42
10.2. Helburuen zuhaitza	42
10.3. Zehar-konpetentziak	43
10.4. Unitate didaktikoa	44
10.5. Emaitzen analisia	47

1. LANAREN JUSTIFIKAZIOA

Azken lau urteetan Lehen Hezkuntzako gradua burutzeko aukera izan dut, etorkizun hurbilean irakasle izateko helburuarekin. Betidanik egin dut lan umeekin eta helduekin aisialdian, koordinatzaile eta zuzendaritza lanetan, modu boluntarioan eta profesionalean. Beraz, guzti honek gaiaren aukeraketan eragin duela esan daiteke, nahiz eta horretarako, arazoen eta helburuen zuhaitzaren teknika (ikus 10.1. eta 10.2. eranskinak, 42. orrialdea) aplikatu den. Azkenean, lehenengo praktiketan bizi izandako esperientzia batean oinarritzea erabaki nuen, guraso batek haren semea jendaurrean panpinekin jolasten ari zela mespretxatu zuelako. Horregatik, lan honen bitartez berdintasunezko hezkuntza eskaintzearen garrantzia aldarrikatzea gustatuko litzaidake, ikasleekin aurrera eraman dudan unitate didaktikoaren laguntzaz. Honen bitartez, genero estereotipoak barneratu dituzten ohartzeko eta horiek ezabatzeko ahaleginak egin nahi izan ditut, irudi eta ekoizpen plastikoei dagokien tokia emanez.

Halaber, unitate didaktikoaren bitartez pentsamendu kritikoa lantzerako interesgarria delakoan nago, ikasleak pertsona independenteak izan daitezen. Izan ere, txikitatik jasaten dituzten sozializazio-prozesuek sexuarekiko aurreiritziak garatzen dituzte haiengan eta horiek sor ditzaketen ondorio larriei aurre egiteko baliabideak eman beharko litzaike. Horretarako, ezinbestekoa da umeek genero estereotipoak barneratu dituzten jakitea, horiek ezabatzeko ego berregiteko behar dituzten baliabideak erabiltzen erakusteko. Kasu honetan, eragile askok umeengan genero rol eta estereotipoak eragiten dituztela ikusteaz gain, ingurukoek haien sexukoak ez diren ezaugarriak hautatu ezker, horiek epaitzeko joera dutela aztertu da. Beraz, hezkuntzak egoerari aurre egiteko erronka handia duela ikus daiteke, sortu dituzten irudiei analisi kritikoa egiteko estrategiak eman behar zaizkielako. Gainera, ikasleentzat eredu izan daitezkeen emakume erreferente anitz landu ditut, guztiok nahi duguna egiteko askatasun oso izan beharko genukeela ohartu daitezke. Eredu iraultzaileei esker, gizartean iruditegi estereotipatu eta patriarkala deseraikitzea posible dela aztertu dut, originaltasun eta alfabetatze bisuala oinarri izanik, bide hau jarraitzeko interes handia piztu zidatelarik.

Gauzak horrela, lan honetarako proiektu didaktiko hau diseinatzea eta frogatzea erabaki dut, azken urteotan garatu ditudan baloreak bateratuz: ikasleen iritziak eta ikuspuntuak entzutea; generoen arteko parekotasuna bermatzea; sexu bakoitzarekiko garatzen diren aurreiritziak kontuan hartzea; talde lana bultzatzea; norberak ikaskideengatik ikastea; pentsamendu kritikoa trebatzea; eta aurreiritzi estereotipatuaren aurrean ikasleei jarrera iraultzailea izaten irakastea. Laugarren mailan egin dudana minorrean irakasle askok esaten zidaten antzera... MUNDUA ALDATZEKO GARAIA IRITSI DA!

2. SARRERA

Gaur egun gizartean genero eta sexuaren arabera gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak ematen direla nabari daiteke, tratu eta eginkizun desberdinak ditugulako. Honetan, emakumeak kaltetuak izan ohi dira, gizartean ezarrita dugun kultura androzentrikoa¹ dela eta, hau da, gizona emakumearen gain dagoen eredu. Generoen artean ematen diren desberdintasunez ohartzea ezinbestekoa da, jaiotzen garenetik parekotasunik aurkezten ez duten sozializazio-prozesuetan hezten gaituztelako. Mutil edo neska izateagatik alderdi askorekiko trabak (koloreak, jantziak, jostailuak...) ezartzen zaizkigu eta guzti horiek gure etorkizunean eragiten dute. Beraz, generoaren arabera txikitatik gure izaera baldintzatzen ari direla/garela esan genezake, erabiltzen ditugun gauzen eta bizi izandako esperientzien ondorioz, nahiz eta noizean behin modu inkontzientean egiten dugun.

Honetaz gain, besteekin erabiltzen dugun hizkuntzak gudan eragiten du, horiek imitazioa medio errepikatzeko joera dugulako. Beraz, beharrezkoa den aldaketa kulturala martxan jarri behar dugu, maskulinitatea lehenesten duen gizartea ezabatzeko eta emakumeen ereduak berebiziko lekua hartzeko. Hori dela eta, hezkuntza tresna erabakigarria da gizarteaz gain emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko. Izan ere, hezkidetzak bultzatzen duen hezkuntza sistema bati esker, aurrera eramango liratekeen jardueretan genero rol eta estereotipo tradizionalak eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko botere-harremanak ez lukete tokirik izango. Egundak sistemak berebizikoa den gaia da hau, ikasleei prestakuntza integrala eskaintzeko eta etorkizun hurbilean errespetuz jokatzeko aukera ematen dielako, generoaren arabera egun ematen diren diskriminazioak aintzat hartu gabe. Gainera, haur guztiei zuzenduta egon behar du, jaio aurretik mundu estereotipatu batean bizi direlako, itxura fisikoagatik, hau da, sexuagatik rol jakin batzuk ezarriz.

Gauzak horrela, lan honen bitartez generoa gaitzat izanik berdintasunezko hezkuntza eskaintzearen garrantzia aldarrikatzea gustatuko litzaidake, umeek eskubide berdinak izan behar dituztela ohartu daitezen. Horretarako, burutu den ikerketa honi egitura bat eman zaio. Lehenik eta behin, marko teorikoaren bitartez irakurleari gaian kokatzen laguntzea espero da, kontzeptu anitz argituz eta gaiak hezkuntzarekin duen harremana adieraziz. Ondoren, ezarri diren ikerketa galderak eta helburuak adieraziko dira, aurrekoarekin bat metodoa diseinatzeko balio izan dutenak. Honek, bidea irekiko dio emaitzen analisiari eta amaitzeko, emaitzetatik atera diren ondorioak aipatuko dira, egun diren mugak eta etorkizunean praktikan jarri ezkeroko egingo liratekeen hobekuntza proposamenak adieraziz.

¹ Androzentrisismoa da, kontzienteezko edo beste modu batera, ikuspegi maskulinoa munduaren ikuspegiaren, kulturaren eta historiaren erdigunean jartzeko praktika, feminitatea kulturalki baztertuz.

3. MARKO TEORIKOA

Gizakia izaki soziala da. Jaiotzen denean hazi gabe dagoenez, etengabeko estimulazioa eta informazio jasotzen du inguruan dituen pertsonengandik bere izaera osatzen joan dadin. Hau da, garapen fisiko eta psikologia izateko ezinbestekoa da berdinen arteko harremanak sortzea, haietatik ikas dezaten. Gasteizko Udalak (2015) dioenez, kultura, bizimodu zehatza eratzen duten eta talde bateko kide berriak bertan sozializatzen diren elementuen (ohiturak, balioak, praktikak, ezaguera, arauak, etab.) multzoak osatzen du. Hala ere, kulturak transmititu dituen baloreak eta arauak urteetan zehar aldatu dira, gaur egun ezagutzen ditugunak eman arte, prozesu sozial, politiko eta hezkuntzari esker.

Hezkuntza arloan sakondu ezker, banakako sozializazio prozesuak bertan ematen direla esan daiteke, haurrak ingurukoekin harremana izanez hezkuntzak, baloreak edota arauak barneratzen dituelako. Marañonek (2018) aipatzen duenez, umeez helarazten zaizkien mezu guztiak jasotzen dituzten, neska edo mutil izateagatik desberdinak izanik. Honetan, gizarteko estereotipoek emakumeari kalte handiak eragin dizkiotela adierazi nahi da, generoaren eraikuntza mugatu egin delako. Izan ere, gizarteak erabakitzen du neskatoa edo mutikoa nolakoa izan behar duen, jaiotzatik harengan kontzeptu anitz finkatuz. Hau dela eta, atal honetan zehar ikasleekin aurrera eramane den esku-hartzea diseinatzeko erabili diren oinarri teorikoak aipatzen dira, hiru bloketan bereizita daudenak.

Hasteko, sozializazio-prozesuek haurrengan eragiten dituzten genero estereotipoak adieraziko dira, mutil eta neskek txikitatik eremu anitzetan jasotzen duten hezkuntzak parekotasun gutxi dituela ikus dadin. Honetaz gain, eskolak gizartean ematen denaren erreproduzio txiki bat egiteaz arduratzen direnez, hezkidetzaren helburu duten hezkuntza ereduaren beharra adieraziko da, martxan jarri ezker dakartzan onurak eta jarraitu beharreko pausoak aipatuz. Amaitzeko, lan honetan adierazi den gaia lantzeko Arte Hezkuntzak eskaintzen dituen bi baliabide azalduko dira, ondoren aipatzen den unitate didaktikoa aurrera eramateko funtsezkoak izan direnak: irudia eta marrazkigintza.

3.1. Sozializazio-prozesua genero estereotipoen sortzaile?

Genero estereotipoak jokaera ereduak eta sozialki (batez ere) eraikitzen diren aurre-ideiak dira, genero maskulino eta femeninoaren inguruan. Horien ardura emakumeek eta gizonek nola jantzi behar duten, nola sentitu behar diren, nola jokatu behar duten, nolako harremanak garatu behar dituzten eta nola pentsatu behar duten adieraztean datza (Marañon, 2018). Belaunaldi guztietan ematen diren estereotipoak dira, txikiek helduengatik ikasten dituztelako. Hortaz, txikitatik genero roletan hezten gaituzte eta jasandako sozializazio-prozesu horren ondorioz gure identitatea eraikitzen hasten da: emozioak,

hautemateak, desirak... Hauek barneratu ostean, ontzat hartu eta hurrengoei irakasten dizkiegu, nahiz eta rol femeninoa edo maskulinoa izan.

Honen ardura eragile askok dute eta noizean behin inkontzienteki bada ere norbanakoaren identitatea eraikitzerakoan zailtasunak eragiten dituzte. Beraz, sozializazioa bultzatzen duten eragile desberdinek, hau da, familiek, berdinen arteko harremanek eta komunikabideek, zeresan handia dute haurrek genero estereotipoak garatzen dituztenean, ezartzen zaien ibilbidearen arabera aukera batzuk edo beste ematen zaizkielako.

3.1.1. Familia

Haurraren sozializazio-prozesuan aldaketak eragiteaz arduratzen diren lehenengo eragileak dira, jaio aurretik haien seme-alaben, iloben, biloben... identitate pertsonala garatzen hasteko gehiengoa antolatzen dutelako, sexuaren arabera desberdintasunak areagotuz: jostailuak, arropa, koloreak... Beraz, betidanik haurrek genero estereotipoen eragin goiztiarra jasan dutela esan daiteke. Emakundek (2008) dioenez, hauek dira familiaren eraginagatik umek sexu eta generoaren arabera jasaten dituzten ondorioak:

Itxaropen batzuk ezartzen zaizkio: neska bada lasaia eta goxoa izatea espero dute; eta mutila bada mugitua eta oldarkorra.

Jokabide berdinen aurrean, gurasoek desberdin jokatzen dute , haurraren sexuaren arabera.
--

Alaba edo semea desberdin hartzen dute .

Ahozko edo keinu bidezko komunikazioaren bitartez desberdin baloratzen dituzte: neskarekin komunikatzeko hiztegi apala (printzesa, eder) erabili arren, mutilarekin arrotz jokatzen dute (irabazle, azkarra). Hau da, mutil edo neskekin komunikatzeko erabiltzen den hiztegiak ez du parekotasunik .
--

Haurrak sexuaren arabera janzten dituzte, koloreekiko bereizketa emanez : neskak dotore eta eder joaten dira, gona eta soinekoen erabilera nabaritzen; aldiz, mutilak erosoak diren arrokekin janzten dituzte, eskola orduan edota kanpo jolas eta zikin daitezten.
--

1. taula. Haurraren sexuaren arabera familiek ezartzen dituzten desberdintasun batzuk.

Jaiotzen direnetik familiak haurraren sozializazio prozesuaren kudeatzaile dira, lehenengo urteetan bereziki. Txikiak direnez inguruan duten oro imitatzeko joera dute, beraz, familia eredu garrantzitsutzat hartzen da haurrek haien ohitura eta jarrera nagusienak kopiatzen dituztelako. Izan ere, seme-alaben sexua jakiten dutenetik, desberdin jokatzen hasten dira, hartzen diren erabakiek etorkizunean eraginez. Hots, neska, panpinez, etxetxo edota sukaldez hazten da; aldiz, mutilari, garraioak eta kirol osagarriak (baloiak) oparitzen zaizkio jolas dezan. Horretarako, berebizikoa izango da haien etxeetan ematen

den egoerari erreparatzea, hezkidetzaz bultzatu nahi bada jolas arloan edozein material erabiltzen utziko zaiolako, gurasoek haien harremanetan berdintasuna erakutsiz, genero estereotipo eta rolek amaitu dezaten.

Halaber, familia ereduak aldatuz joan dira, gizartean eman diren aldaketa historikoei erantzuna emanez (Cevotarev, 2003). Emakumeak espazio pribatuetatik, hau da, etxetik espazio publikoetan lan egitera igaro dira, etxeko lanez gain gizonen antzera lan munduan murgilduz. Beraz, rol femeninoa ez ezik, maskulinoa ere aldatu egin da, gizonak etxeko lanen ardura hartzen dutelako, nahiz eta aurretik aipatu den sistema patriarkatuari erreparatu behar diogun. Honetaz gain, garrantzitsua da familiak sexuaren arabera dituzten itzaropenak desberdinak direla aipatzea, haurren nortasunean eta izaeran eragiten dutelako.

3.1.2. Lagunak edo berdinen arteko harremanak

Halaber, umea bere ikaskideekin aritzea ezinbestekoa da, sortze pertsonala eta auto-ezagutza garatzeko balio diolako. Talde batean egoteaz gain, haren zati dela sentitzeak on egiten dio haren autoestimuari, nahiz eta gazte direnetik mutilek emakumetzat definitzen diren jarduerak edota emakumeek mutilentzat direnak egiteko zailtasunak aurkezten dituzten. Izan ere, hori eginez gero taldetik kanpo geratzeko beldur dira, ikaskideen gutxiespena jasoko dutelakoan. Hori dela eta, beste sexuarekin zerikusia duten ekintzak alde batera uzten dituzte, haien identitatea gizartearentzat ondo ikusita dagoenaren arabera eraikiz: kirola, jostailuak, arropa, koloreak, lagun-taldea... (Espinosa, 2000).

Atal honetan, egun sexu eta kirolaren inguruan sortzen diren genero estereotipoak argiak direla adierazi nahi da. Izan ere, Olabarrietak (1993) dioenez gizarteak mutilentzako eta neskentzako diren kirolak esleitzen ditu, sexuen arteko desberdintasunak areagotuz. Dirudienez, gizonak praktikan jarri ditzaketan kirol egokienetan (futbola, saskibaloia, tenisa...) oldarkortasuna, lehiakortasuna eta kontaktu fisikoa eskatzen da; nesken kasuan, aldiz, trebetasuna, malgutasuna eta harmonia ekintzak (dantza klasikoa, igeriketa...) burutzeko beharrezkoak izanez. Esate baterako, futbola orokorrean mutilei gustatzen zaien kirola da. Aldiz, gizonen batek dantza nahiago balu, zer gertatuko litzateke? Haren ikaskideen partetik zapalkuntza jasoko lukeela, neskek futboleko praktikan jartzeko kirola aukeratuko balute bezalaxe. Beraz, kirol arloan genero oso markatuak daudela ikus daiteke, gaiarekiko mito anitz sortu direlako: *“kirol asko egiteak emakumeei feminitatea kentzen die”*.

Gizarteak haren sexukotzat esleituta ez dituzten jarduerak burutzen dituzten mutil eta neskek baztertzeko joera du (Alvariñas, 2018). Egoera aldatu dadin, neskei estereotipo maskulinoetan oinarritzen diren kirolak probatzera animatu beharko litzateke eta, mutilei, estereotipo femeninoetan murgiltzen direnak. Era honetan, kirolek generorik ez dutenaren

ideia barneratuko lukete, praktikan jarri nahi dituzten jardueretan ezagunak diren erreferente gizon eta emakumeak erakutsiz. Gainera, interesgarria izan daiteke txikitik gustuko zituzten kirolak berreskuratzea, horien garrantziaz ohartu zitezten (Varela, 2019).

3.1.3. Komunikabideak

Gizon eta emakumeen estereotipo hedatzaile bilakatu dira, hauen kontsumoa teknologia berrien etorrera masiboaren ondorioz handiagotu delako. Haurren kontsumo mediatikoa handituz doa eta egun baliabide hauetan agertzen diren genero estereotipoak era inkontzientean barneratzen dituzte, ordu ugari hauetan pasatzen dituztelako. Ez hori bakarrik, denboraren poderioz tresna hauen kontsumoa banakako jarduera bilakatzen ari da, sare sozialen erabilerak indarra hartu duelako (Basterretxea, Idoiaga, Ramirez de la Piscina eta Zarandona, 2006), irudietatik garatutako informazioak mutil eta nesken arteko desberdintasunak areagotuz. Dominguezek (2017) dioenez, egungo kanonak ez datoz bat askotariko edertasun-moldeekin: emakumea, gaztea, argala eta gaitasun gutxikoa izatea espero da; gizonari gihartsua izatea eskatzen zaion bitartean. Honetaz gain, emakumea irudikatzeke ilehoria eta luzea, argaltasuna, begi handiak eta gona edo soinekoaren erabilera dira nagusi, sarritan arrosa edo more kolorekoak izanez, eta gizonekin alderatuz apaingarri gehiago aplikatzen dira, hala nola takoiak, lepokoak, eskumuturrekoak edota belarritakoak. Aldiz, gizona errepresentatzeko (orokorrean) xehetasun gutxiago erabiltzen dira, kiroleko arropak eta kolore gorriak eta horiak nagusitasuna izanez (Sanchez, 2014; eta Benito, 2017).

Halaber, ikasleek ingurunetik jasotzen duten informazio oro haien irudietan plasmatzeko aproposa ikusten dute, neskek mutilek baino gehiago emakumea gona edo jantziekin eta ile luzearekin irudikatuz (Chacon eta Sanchez, 2013). Hala ere, kultura edo garai desberdinei esker gizon eta emakumeentzako jantzi eta orrazkera desberdinak modan jarri dira, sexuen arteko desberdintasunak murriztu daitezten. Horregatik, sozializazio-prozesua genero mugetatik ihes egiteko beharrezkoa da, planteatzen den betaurreko moreen begirada aplikatzen bada (Ugarte, Otaduy eta Irigoyen, 2012). Adierazitako betaurrekoen kolorea morea izatearen arrazoia, feminismoak ikuspegi hori ematen duelako da. Horretarako, generoaren analisi orokor bat egitea ezinbestekoa da, hezkidetzaren prozesuak sortzeko eta pertsona askeak eraikitzeko.

Gizarte patriarkalek eta matxistek kalte handia eragin dute emakumeen eta gizartearen osasunean, lehen aipatu den haurren garapenarekiko negatiboki eragiten duelako eta, horren ondorioz, biztanleriarengan tentsioak areagotzen direlako, guztiengan talka suposatuz (Pardo, 2017). Hori arazo bat dela jakinik, gizarte garaikideek mutil eta nesken arteko parekotasunak handitu daitezten legeak garatu dituzte (NBE, 1948; Espainiako Konstituzioa, 1978; 3/2007 Lege Organikoa...). Horiei esker, emakumeei eragiten dieten

diskriminazioak eta desberdintasunak murriztu nahi dira, egiten duten lana kontuan ez hartzeaz gain, baloratzen ez delako (Alario eta Anguita, 1999).

Teoria feministei esker, kontzeptu askoren analisia egiten da, beraz, ezinbestekoa da egun ematen diren egoerez ohartzea, hausnartzea eta kritikatzeta, aldaketak eman daitezen. Horretarako, eskola dugu, nahiz eta bidezkoa eta parekoa izan dadin espazio seguru eta eraldatzaileak beharrezkoak diren. Irakasleak kritikoak izan behar dira, mekanismo hetero patriarkatuak garatu ez daitezen. Hortaz, Azken finean, erne ibili behar dira ikasgela barruan edota kanpoan irakasten duten guztiarekin, haurrek ideia estereotipatuak sozializazioa bide izanik barneratuta dituztelako, hau da, jaiotzez ingurukoek gizon edo emakume definitzen dietelako eta kontzeptu batzuk garatzera behartzen dituztelako (Rodríguez, 2007).

Honenbestez, argi dago hezkidetzan heztea ez dela bide erraza, genero estereotipoak une oro konturatu gabe barneratzen direlako. Hala ere, neskek eta mutilak berdintasunean hezteko patriarkatua alde batera uzten duen sistema hedatzea beharrezkoa da, haurrak eta orokorrean gizartea ematen diren desberdintasunez ohartu daitezen.

3.2. Eskola: hezkidetzeta eta curriculuma

Generoa hezkuntza sistema barne ematen diren desberdintasunen artean kokatzen da, egunotan mantentzen den sistema patriarkala² dela eta. Egun martxan dagoen sistemaren bitartez gizonek arlo anitzekiko pribilegioak izan arren, emakumeak menderatuak izaten ari dira maila berean ez daudelako. Orokorrean, eskolak gizartean ematen denaren erreproduzio txiki bat direla esan daiteke, kulturaren arabera ezarrita dauden balore, sinesmen, erritu... oro transmititzen dituztelako, genero rola barne. Beraz, hauen ardura ere bada sexuaren arabera ematen diren desberdintasunak murriztea, gizon eta emakumeen arteko parekotasunak arlo guztietan eman daitezen.

Hezkuntzak gairekiko jarrera neutrala erakutsi arren, askotan, modu inkontzientean, alboratua eta matxista ere bada, emakumearen eredia eskolako materialetatik kanpo geratzen delako, hau da, eredu femeninoak gutxitan erabiltzen direlako (Barffusón, Revilla eta Carrillo, 2010; Pardo, 2018; eta Laguna eta Pardo, 2018). Era honetan, sexuen arteko desberdintasuna areagotzeaz gain, ikasleen arrakasta (akademikoa) norberaren jatorrizko taldearen arabera ematen dela esan ohi da, genero desberdintasunen areagotzeak negatiboki eragiten duelako. Horregatik, gizon edo emakume izateak etorkizuna baldintzatzen duela esan ohi da, sexuaren arabera pertsonak pribilegio batzuk edo beste izaten dituztelako, aukera horien arabera nesken eta mutilen etorkizuna baldintzatuz.

² Soziologian, patriarkatua, gizarte patriarkala ere deitua, gizona, emakumearen aldean, nagusi eta agintaritzat duen familia-eredua eta sistema soziala da.

Sexuen artean ematen diren bereizketekin amaitzeko, hezkidetza bultzatzen duen hezkuntza eredu bat martxan jarri behar da. Hezkidetza, egun nabarmen egiten ari den oso kontzeptu garrantzitsua da, gure gizartean gizon eta emakumeen artean ematen diren desberdintasunak eskoletan eragiten dutelako. Reizabalek (2015) dioenez, hezkidetza gizon eta emakumeen arteko eskubideen, lanaren, aukeren, betebeharren, etab.; berdintasuna helburu duen hezkuntza-eredua da. Beraz, eskoletan martxan jarri behar den baliabidea da hau, agerian dauden desberdintasunak berdinak edo antzekoak bilakatu daitezten. Hala ere, neskak eta mutilak berdintasunean hezteak ez du esan nahi parekoak izan behar direnik.

Bistan da arestian aipatzen diren arrazoiengatik hezkidetza helburu duten hezkuntza-ereduak funtsezkoak direla, neskak eta mutilak era berean tratatuak izateko, sexu desberdintasunei uko eginez (Alfonso, 2016). Honetan, eskolaren zeregina berebizikoa da, haurraren integrazio-prozesuak ahalik eta desberdintasun eta genero desadostasun gutxien izan ditzan. Izan ere, genero eredu kulturalen transmisioan hezkuntza oinarrizko zutabeetako bat da, ikastetxeek aldaketa hezitzaileak eta sozialak garatu ditzaten. Castillok eta Gamboak (2013) diotenez, eskolak herritarrak hezten ditu eta horietara joatea funtsezkoa da, nahiz eta eskaintzen duten hezkuntza-sistemak sexu desberdintasun eta harreman patriarkatueta oinarritzen diren. Genero azterketek adierazten dutenez eskolek jarrera sexistak dituzten eta, honen ondorioz, sexuaren arabera hezkuntza desberdina jasotzen dute haurrek.

Sexismoak ondorio latzak eragiten ditu banakoengan, gaitasunekiko mugak jarriz eta gizon eta emakumeen arteko konparaketak eginez, azken hauek maila baxuago batean kokatuz. Honetaz gain, generoaren arabera ezartzen diren neurriek nortasunean mugak ezartzen dituzte, curriculum ezkutua³ dela eta sexu bakoitzerako itzaropen eta aukera desberdinak aurreikusiz. Hortaz, aldaketak era egokian garatu daitezten, Eusko Jaurlaritzak (2019) argitaratutako hezkidetza planean biltzen diren helburu nagusiak baliagarriak izango zaizkie eskolei irakasleek saioak prestatzeko eta eskoletan hezkidetza bultzatzeko:

Hezkuntzaren arloan lantzen den araudiak berdintasunezko eta hezkidetzako mandatuak beteko dituela bermatzen jarraitzea.
Emakumeen jakituria eta ekarpen sozial eta historikoa diziplina guztietan txertatzea.
Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, bi sexuen irudi plurala bermatuko duena, genero-rola eta –estereotipoak alde batera uzten dituen.
Orientazio akademiko-profesional ez-sexista bermatzea.

³ Curriculum ezkutua curriculum formalak zehatz ezartzen ez dituen alderdi inplizituen multzoa da, ideologia, irudikapen, jarrera, balio, ohitura eta sinesmenak txertatzen dituen ikasleengan. Ikasketa-planetan eta bestelako hezkuntza-arauegian ez badago ere, erakunde sozialak indartu eta iraunarazteko ezinbestekoa da, batzuetan haurrak ideologikoki moldatzeko erabiltzen bada ere.

Berdintasuna ezkutuko curriculumean eta agerikoan agertzea.
Aniztasunaren molde guztiak txertatzea.
Baliabideen eta espazioen erabilera bidezkoa sustatzea.

2. taula. Hezkidetza-eskolak planteatzen dituen helburu nagusiak (Eusko Jaurlaritza, 2019).

Berdintasunean oinarritutako hezkuntzari erreferentzia egin nahi bazaio, ikaskuntza aukerak eta erreferenteak parekoak izan beharko lituzkete haur guztiek, desberdintasunak gutxitu daitezten. Txikitatik irakatsi behar zaie genero estereotipoak garatzeko erraztasuna dutela eta horiek deseraikitze dagoen beharra. Hala ere, berdintasunean oinarritutako hezkuntza bat eskaintzea ez da lan makala, gizarteak eta une oro ematen diren aldaketek presiopean jartzen gaituztelako. Beraz, hezkuntza mota hau erronka gisa har daiteke, utopikoa ere badelako; hau da, etengabe kontrakorrantean ibiltzea beharrezkoa da, haurrek gero eta erreferente androzentristagoak izan ohi dituztelako.

Proposatzen diren helburuak aurrera eramateko, eskolak hezkidetza bultzatzeko ezaugarriak kontuan hartu behar ditu. Jarraian, esanguratsuenak aurkezten dira, Eusko Jaurlaritzak (2019) aipatzeaz gain aurrera eraman den ikerketarako erabili direnak:

1. **Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean:** ikasgelan berdintasuna lantzea beharrezkoa da, genero-ikuspegia modu kritikoan landuz.
2. **Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista:** hizkuntzaren erabilera ez sexista, ez da soilik genero maskulinoa eta femeninoa erabiltzea; generoarengatik bereizketa egiten ez duten hizkuntzei ere eragiten die.
3. **Emakumeen jakituriaren integrazioa: ekarpen soziala eta historikoa** lantzea.
4. **Gatazken eraldaketa baketsua, elkarbizitzarako hezkidetza bultzatzen duten proiektuen bitartez:** elkarbizitzan genero-ikuspegia lantzea oinarritzkoa da, indarkeria sexistari aurre egiteko, beraz, errespetuan era berdintasunezko harremanetan oinarritutako elkarbizitza behar du izan.
5. **Autonomia pertsonala eta interdependentzia ekonomikoa:** hezkidetzak oreka lortu nahi du, etxeko eremuan eta eremu publiko eta okupazionaletan.

Sistemak eta eskolek hezkidetza bultzatzeko aldaketak egiteaz gain, irakasleen ardura ere bada hau helburu duen hezkuntza bat diseinatzea. Gainera, ezin da ahaztu irakasleak eredu izan ohi direla, beren interes, motibazio eta autoestimuan eragiten dutelako (Povedano, Muñiz, Cuesta eta Musitu, 2015). Horretarako, berdintasuna oinarri duen hezkuntza batek, haurrengan ezagutza eta jarrera baikorrak sustatu behar ditu, historian zehar eman diren gizonen eta emakumeen aurkikuntzak maila berean adieraziz, egun emakume erreferente gutxi aipatzen direlako. Era honetan, ikasleek emakumeak etxeko lanak egiteaz eta familiako kideak zaintzeaz haratago arduratzen direla ikusiko lukete,

emakume historikoez gain zaintza garrantzizkoa eta baloratu behar den lana dela jakinez. Askorentzat, etxean barne egiten diren lanek arduratzea ez da lana, etxetik kanpo dauden lanbideei garrantzia emanez (Rodriguez, 2007). Horregatik, etxean barne egiten dena lana ere badela irakatsi behar zaie, horien ardura kideen artean banatuz.

Halaber, haur eta gazte literaturan sexuen arteko desberdintasunak ematen dira. Istorio gehienetan emakumeak bizitza gogorra izaten du, beraz, haiekiko zapalkuntza ematen da. Horregatik, testuliburuek eta ikas materialek hezkidetzak bultzatzen duten aurreikusi behar da, genero estereotipoetan eta rol sexistetan ez erortzeko emakume erreferenteen presentzia gehituz. Honi esker, mutilek neskak edozer egiteko eta erabakiak hartzeko gai direla ulertu beharko lukete, bidezkoena haien maila berean egotea delako. Gainera, eskolako material hauen bitartez pentsamendu kritikoa eta zehar-kompetentziak garatzea ezinbestekoa da, haurrek haien kabuz pentsatzeaz gain iritziak ematen eta haien berdinekin argudiatzen hasteko. Funtsezkoa da egun dagoen errealitate patriarkatuaren kontzientzia izatea, eskoletan erabiltzen diren materialek genero estereotipoak ekiditen dituzten aurreikusiz (Varela, 2019).

3.3. Irudia eta marrazkigintza baliabide pedagogiko gisa

Arestian aipatu denez, gizakiak izaki sozialak gara eta ingurukoekin komunikatzeko eta harremanak sortzeko beharra dugu, gure ideiak, iritziak eta pentsamenduak besteekin partekatzeko. Hala ere, ahozko komunikazioa ez da pentsatzen edo sentitzen duguna transmititzeko erabili dezakegun bide bakarra, baliabide anitz eskura daudelako. Haurren kasuan, marrazkien erabilera norberak nahi duena hitzik gabe adierazteko erabiltzen den bitarteko esanguratsutzat aurkezten da. Haui esker, ezagutzak ulertzeko, arakatzeko, ikasteko, hausnartzeko eta horien inguruan eztabaidatzeko aukera dute (Rigo, 2014).

Marrazkiaren jatorria, Puleoren (2012) ustez, gizakiak haren sentimenduak, ideiak... jakinarazteko zituen behararen ondorioz eman zen, mezu horiek baliabide konplexuagoa ez zen bide batetik adierazteko. Marinek (1988) dioenez, ahozko eta idatzizko hizkuntza menderatu aurretik, gizakiak marrazki esplizituak egiteko gai dira, haien ingurune fisikoan eta afektiboan gertatzen dena adierazteko. Haurrek ezagutzen duen oro marrazteko joera dute: ikasi dutena (irakatsi diotena), imitatu duena, interpretatu duena... Hau da, beren emozioak, ideiak eta pentsamenduak irudien bitartez adierazten dituzte. Gainera, errealitatea modu subjektiboan eta indibidualean hautemateko eta interpretatzeko gai dira, eta munduari erantzuten diote, uneko interesen arabera (Jimenez, Mancinas eta Martinez 2008).

Halaber, haurren marrazkiak komunikaziorako eta adierazpenerako bide nagusietako bat izateaz gain, norbanakoaren garapen integralari laguntzen dioten tresna dira. Libreek

bereziki, haurren bizitza kontatzen dute, horrek ere psikomotrizitateari, garapen kognitiboari, sormenari, auto-konfiantzari, nortasunari eta heldutasun biologiko eta psikologikoari on eginez (Manjarres, 2015). Rigok (2014) dioenez, eskoletan egun dauden testuliburuak aurreikusiko balira, horien %50a irudiak direla ikusiko litzateke, nahiz eta horien irakurketa, interpretazioa eta behaketa gutxitan eman den. Oro har, irakasleek eta ikasleek idatziz aurkezten den informazioari erreparatzen diote, baliabide pedagogiko berri hauen bitartez adierazi nahi dena ulertzeko eta ikasteko baliabide falta dutelako.

Adierazpen plastikoek plazerra sortzeaz haratago doaz, irakasteko baliagarriak diren tresnak direlako, beraz, egun hezkidetzak garatu nahi den hezkuntza sistematan honelako baliabide pedagogikoak martxan jarri beharko lirateke, ikasleek informazio iturri bisualen erabileran ikasi dezaketelako eta ikasi beharko luketelako. Are gehiago, bere ustez ikus kulturaren ikaskuntza XXI. mendeko ikasleen ezagutza integrala eraikitzeke oinarritzeko atal bilakatu da. Horregatik, kontraesana dirudi gizartean irudiari ematen zaion garrantzia ikusita, hezkuntza arloan ikus kulturak toki eskas izatea, askok heziketa baliabide bezala erabiliz.

Irudia irakaskuntza-sekuentzia eta jarduera akademikoen plangintzan txertatu dadin, baliabide honi esker aurrera eramanez nahi diren jarduerak planifikatu behar dira, zereginaren bitartez gaiarekiko ezagutza izateko eta informazioa barneratzeko (Rigo, 2014). Kontua ez da ikustea, edo irudia apaingarriztatzea, baizik eta irudiak estrategia pedagogiko eta didaktiko gisa erabiltzea, ikasgela barne ematen diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeko, haurrek beren emozioak, ideiak, pentsamenduak adierazi ditzaten (Puleo, 2012). Izan ere, irudiekin lan egiteak ikasleen eta irakasleen artean gogoeta-gune bat irekitzen du, haien arteko zubien sorrerari esker alde aurreko ezagutzen, kontzeptuen eta errealitate soziokulturalen artean ikaskuntza eta ulermena bultzatuz (Rigo, 2014).

Garcia (2019) dioenez, irudien erabilera funtsezko hezkuntza-tresna gisa hartzen da eta, horregatik, egunero sortzeko aukera eman behar zaie haurrei. Batzuetan, horma-irudi bateratuen bidez egin dezakete, bestetan ipuinen bat lantzeko asmoz, baita marrazki libre individual gisa ere... Hauen bidez, zer pentsatzen duten, nola sentitzen diren edo inguruan duten mundua nola ikusten duten interpreta daiteke. Marrazteak sentsibilitatea garatzen laguntzen die, eta bide bikaina da lantzen ari diren gaiarekiko dituzten emozioak azalarazteko. Ikastetxean garatutako bizipenen beste elementu bat dira, eta haurrei asko gustatzen zaie egiten dituzten gauzak baliotsuak direla ikustea, auto-estimua hobetzen laguntzen ditelako (Garcia, 2019). Gainera, sormena eta irudimena funtsezko oinarriak dira haurren hezkuntzan. Txikitatik sustatu behar diren faktoreak dira, mugarik jarri gabe eta egiten dituzten marrazkiak zuzendu gabe, errealitatearekin bat datozen ala ez baloratuz.

4. IKERKETA GALDERA ETA HELBURUAK

Lan honen diseinua aurrera eramateko, jarraian aipatzen diren ikerketa galderak izan ziren abiapuntua:

- Lehen Hezkuntzako 1. mailan, gizartean dauden genero estereotipoak barneratuta ditugu jada?
- Posible da haurrek eskuratu dituzten genero estereotipoak lantzea eta gutxitzea, baliabide didaktiko berritzaileen bitartez?

Ikerketa galdera hauen inguruan hausnartu ondoren, bi helburu orokor ezarri dira arazoari irtenbide bat emateko:

- 1) LHko 1. mailako ikasleek egindako marrazkien analisi kualitatiboa egitea, genero estereotipoak identifikatu ahal izateko.
- 2) Hezkidetzaren bultzatzeko proiektu berritzailea sortzea eta aurrera eramatea, Lehen Hezkuntza 1. mailako talde batean.
- 3) Irudi eta ekoizpen plastikoaren sortze-prozesuak zehar-kompetentziak (ikus 10.3. eranskina, 43. orrialdea) bultzatzen dituen aztertzea; hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako, elkarbizitzarako eta norbera izaten ikasteko kompetentziak, zehazki.

Halaber, berariazko helburu batzuk finkatu dira aurretik ezarri diren orokorrak era egokian burutzeko:

1.1. LHko 1. mailako ikasleek egindako marrazkien analisi kualitatiboa egitea, genero estereotipoak identifikatu ahal izateko.

2.1. Gaur egun martxan dauden unitate didaktikoak eta horietan lantzen diren gaiak ikuspegi kritiko batetik aztertzea.

2.2. Emakume erreferenteak bilatu eta, hauek erabiliz, haurren adinera egokituta dauden jarduerak diseinatzea.

3.1. Parte-hartzaileek sortutako irudien analisisa eginez, gaiarekiko dituzten iritziak eta ikuspuntuak ezagutzea.

3.2. Adierazpen grafiko eta irudien behaketaren bidez umeei hausnarketa, argudiatzea eta pentsamendu kritiko gaitasunak garatzen dituzten aztertzea.

5. METODOA

Atal honetan, lana burutzeko funtsezkoak izan diren metodoaren hiru alderdi deskribatu dira.

5.1. Parte-hartzaileak

Ikerketa honen bitartez, 6 urte inguruko haurrek genero estereotipoak barneratuta dituzten aztertu nahi da, horiek ezabatzeko eta zehar konpetentziak lantzeko baliabideak diseinatuz eta praktikan jarritz. Horretarako, 2020-2021 ikasturtean burutu den Practicum IIIa erabili da, 2021eko urtarrilaren 26tik martxoaren 31ra arte iraun duena eta Gasteizko Salburua auzoan kokatuta dagoen CEIP ERREKABARRI HLHI eskolan egin dena.

Lanaren analisia aurrera eramateko LH 1B gelako ikasle guztiak (25) hautatu dira, unitate didaktikoan biltzen diren sei jarduera burutzeko. Jarraian, taldearen ezaugarri garrantzitsuenak bildu dira:

Generoa	Mutilak	Neskak
Ikasle kopurua	15 ikasle	10 ikasle
Adina	6-7 urte	
Laguntza berezia (ikasleak)	1 ikasle	

3. taula. Errekabarriko LH 1B gelako ikasleen datuak.

Halaber, ikastetxeko hezkidetzaren taldeak aurreikusi duen unitate didaktikoa dela azpimarratu nahi da, haiei esker datorren urteen ikasleek aurrera eramango duten proiektua bilakatu delako.

5.2. Prozedura

Jarraian, lan honen baitan izandako prozedura edo fase ororen deskribapen kronologikoa ematen da. Guztira 3 fase erabili dira ikerketa aurrera eramateko: prestaketa teorikoa, jarduera enpirikoak eta diseinu didaktikoaren emaitzen analisia.

Lehenengo fasea joratu beharreko gaien behar bezala kokatzeko balio izan du, dokumentatze eta berrikuspen bibliografikoei esker, gero estereotipoen, hezkidetzaren, curriculumaren, irudien eta beste askoren inguruko teoriak hornitzeko aukera egon delako. Horretarako, aditu askok kontzeptu horien inguruan diotena irakurri da, iturri fidagarrietan kontsulta egin ondoren.

Behin eduki teorikoz jantzita, CEIP ERREKABARRI HLHI eskolako LH 1B gelako ikasleek genero estereotipoak barneratuta dituzten ikusteko eta horiek ezabatzeko prozesua

martxan jarri da. Hots, arestian aipatu den emakume erreferenteen unitate didaktikoari esker. Proposamen hau eskolak duen ordutegia barne burutu da, ikasgelako tutorearekin jardueren plangintza adostuz. 10.4. (44. orrialdea) eranskinean, Practicum IIIan aurrera eraman den unitate didaktikoa hitzez hitz ikus daiteke, nahiz eta jarraian, egindako jarduerak taula gisa laburtzen diren. Praktikan zehar, ikasleek sortutako irudiak eta emandako azalpenak ikerketa galderari erreparatzeko erabili dira.

1. <u>jarduera</u>: Neska eta mutil baten errepresentazioa		2 saio
Proposamena	Ume bakoitzari orri bat banatuko zaio, mutil eta neska bat marraztu ditzan, Gainera, genero desberdineko pertsona horiek, ekintza bat burutzen marraztu beharko dituzte.	
Helburua	Txikitatik eskuratu dituzten estereotipoez ohartzea: koloreak, formak (osagarriak), ekintzak...	
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Argizarizko margoak eta errotulagailuak. • Papera eta arkatza. 	

2. <u>jarduera</u>: Komikia		3 saio
Proposamena	<i>Marizipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi</i> liburua irakurriko zaie. Korapilora iritsiko orduko, amaiera asmatu beharko dute.	
Helburua	Liburuek transmititzen duten jarrera androzentristaz kontzientzia hartzea, hau da, gizona emakumearen gain dagoela irakatsiz.	
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Argizarizko margoak eta errotulagailuak. • Papera eta arkatza. 	

3. <u>jarduera</u>: Nork egiten du zer?		2 saio
Proposamena	Txartelak sortu ostean, irudikatu dituzten ekintzak haien etxeetan nork egiten dituen (askotan) adierazi beharko dute.	
Helburua	Izaera androzentristarekin jarraituz etxean duten egoeraz ohartzea, etxeko lanak nork egiten dituen erreparatuz: janaria prestatu, etxea garbitu, oheak egin, mahaia jaso...	
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleekin batera sortutako txartelak. • Genero desberdineko bi pertsona eta hirugarren bat bi generoak irudikatzen dituena. 	

4. <u>jarduera</u>: Lanbideak		1 saio
Proposamena	Lau zatitan banatuta dagoen orri batean, irakasleak adierazitako lanbideak marraztu beharko dituzte: irakaslea, garbitzailea, medikua	

	eta erizaina eta suhiltzailea.
Helburua	Lanbide desberdinak zein generorekin lotzen dituzten behatzea, eta mutil edo neska bat zergatik marraztu duten galdetzea (argudiatzea eta pentsamendu kritikoa bultzatu).
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Argizarizko margoak eta errotulagailuak. • Papera eta arkatza.

5. <u>jarduera</u>: Emakume erreferenteen liburuxka		10 saio
Proposamena	<i>Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes</i> liburua erabiliz, ikasleei interesa pizten dieten hamar emakumeren biografia irakurriko zaie. Ondoren, ikasitakoarekin, ikasleek emakume horrekiko fitxa teknikoa osatu beharko dute, liburu bat osatuz.	
Helburua	Emakumeek historia egindako borrokak ezagutzea, aurretik dakizkitenak eta berriak barneratuz: Frida Kahlo, Kleopatra...	
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Argizarizko margoak eta errotulagailuak. • Papera eta arkatza. 	

6. <u>jarduera</u>: Emakume erreferenteetan oinarritutako horma-irudia		2 saio
Proposamena	Emakumeak erreferente direla erakusteko eta atera dituzten ondorioak biltzeko horma-irudi bat osatuko dute.	
Helburua	Orain arte ikasitakoa grafikoki adieraztea. Jarrera androzentristaz kontzientzia hartzea eta deseraikitzeke ahaleginak egitea. Diseinu didaktiko honen bidez, barneratu dituzten edukiak zeintzuk diren identifikatzea.	
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Argizarizko margoak eta errotulagailuak. • Papera eta arkatza. 	

Behin aurreko faseak burutu eta beharrezko datu guztiak esku artean izatean, jasotako informazioaren analisiari eta interpretazioari ekin zitzaien.

5.3. Ikerketa tresnak eta emaitzen analisia

Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleek gizartean ezarrita dauden genero estereotipoak barneratuta dituzten ikertzeko, aurreko atalean eta eranskinetan aurkeztzen den unitate didaktikoa erabili da. Horretarako, denbora luze eskaini zaio prestaketari, hau da, ikasleei emango zitzaien materialen, baliabideen eta informazio teorikoaren erabakiari eta ikertzaileak erabiliko zituen behaketa tresnen diseinuari. Horien artean, eskolan martxan dauden testuliburuak ez erabiltzea erabaki zen, arestian aipatu denez, liburu askok

emakumearen irudia bigarren plano batean geratzen delako. Gainera, ikerketa tresnen artean marrazkia aurkitzea ezinbestekoa izan behar zuen, ikasleek zituzten genero estereotipoez ohartzeko baliagarria zelako. Ez hori bakarrik, honen bitartez ikasleek barnean dutena bisualki euskarri fisiko batean (paperean) adierazteko prest egongo lirateke eta erabilitako koloreek, formek, ideiek informazioa emango ligukete. Hala ere, labur-labur proiektuan aplikatu diren ikerketa tresnak biltzen dira:

A. BEHAKETA KOADERNOA ETA IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK

Ikerketa honetatik atera diren datu gehienak ikasleekin egindako jardueretatik atera direnez, informazio biltzeko bi tresna diseinatu dira. Alde batetik, ikertzailearen behaketa koadernoak aurkitzen da, ikasleek egindako eta esandako oro biltzeko eta ikertzaileari esanguratsuak iruditzen zaizkion gertaerak apuntatzeko.

Beste alde batetik, ikus-entzunezko erregistroa erabiltzea erabaki da, kasu batzuetan haien ahotsak grabatu direlako. Horretarako, ez da eskolaren/gurasoen baimena eskatu behar izan, ikasturte hasieran grabaketak aurrera eramateko baiezkoa justifikatzen zuen oharra guztiek sinatu zutelako.

B. IKASLEEN ADIERAZPENA

Jarduera hauen bitartez, parte-hartzaileen egoera genero estereotipoekiko ezagutu eta proiektuan zehar zehar-kompetentziak garatu dituzten aztertu nahi da, beraz, bi azpimultzo identifikatu daitezke ikerketa tresna honen barne:

- *Adierazpen grafikoa*: Ikasleek unitate didaktikoan zehar egin dituzten marrazkiak biltzen dira, hau da, 1., 2., 4. eta 6. ekintzei dagokiona. Azken finean, irudiak hezkuntza baliabideak dira eta ikusizko kulturaren bidez eredu berriak aztertu, hausnartu, pentsamendu kritikoa garatu... daitezke.
- *Hitzen bidezko adierazpena*: Jarduera guztiak amaieran ikasleen iritziak biltzeko, partekatze eta eztabaidatzeko diseinatu dira. Horretarako, datu dezente testu gisa jaso dira: hausnartutako ondorioak, ikasleek sortutako egoera esanguratsuak... Horien artean, 3. eta 5. ekintzak aurkitzen dira.

Jasotako informazioaren analisis burutzeko metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa eman dira, jaso diren datu kuantitatiboak kualitatiboki interpretatzeko erabili direlako. Izan ere, jaso diren emaitzetatik joatea zen helburu nagusia, ikasle bakoitzak zituen iritziak entzuteko eta horiek ikasgela osoarekin partekatze eta gaiaren inguruan eztabaidatzeko. Horregatik, ikasleen erantzunetatik ateratako emaitzak ikertzaileak behaketa koadernoan bildutako informazioarekin alderatu ditu, emaitzak fidagarriak izan zitezen.

6. EMAITZAK

Aurreko atalean azaldun den moduan, lan honetan erabilitako informazioa lortzeko baliabidea bakarra erabili da: unitate didaktikoa.

6.1. Irudien analisisia

6.1.1. Generoaren errepresentazio grafikoa

KATEGORIAK		PARTE HARTZAILEAK: NESKAK	PARTE HARTZAILEAK: MUTILAK	EMAITZA OROKORRAK
Ezaugarri estetikoak	ILEA: NESKA	ILE LUZEA %100 (10/10)	ILE LUZEA %100 (15/15)	ILE LUZEA %100 (25/25)
		ILE MOTZA % -	ILE MOTZA % -	ILE MOTZA % -
	ILEA: MUTILA	ILE LUZEA %20 (2/10)	ILE LUZEA %-	ILE LUZEA %8 (2/25)
		ILE MOTZA %80 (8/10)	ILE MOTZA %100 (15/15)	ILE MOTZA %92 (23/25)

4. taula. LH 1B gelako ikasleen datuak marraztutako ile estetikari lotuta.

Hasteko, ikasleek mutil eta neskaren errepresentazioan sexu bakoitzari marraztutako ileari (ikus 10.5.1. eranskina, 47. orrialdea) egingo zaio erreferentzia. Izan ere, argi ikus daiteke emakume bat marrazteko eskatzen zaienean ile luzea marrazten diotela, kasu honetan haurren %100ak (25/25) hala erantzun duelako. Aldiz, gizon bat marrazterakoan desberdintasunak agertzen dira, LH 1B gelako ikasleen %8ak (2/25) ile luzearekin marraztu duelako eta %92ak (23/25) ile motzarekin. Emaitzak ikusi orduko ile motza edo luzea marrazteko erabakia nondik zetorren galdetu zitzairen, hau da, zeri erreparatu zioten. Askok inguruan dituzten pertsonengan oinarritu zirela esan zuten: familia, lagunak... Beraz, sozializazio-prozesuak haurrengan eragiten duela baieztatzen da, ingurukoak haien eredu bilakatzen direlako eta egiten duten oro antzeratzen dutelako.

Batzuk haien autokontzeptuan oinarritu ziren, hau da, mutil/neska diren bezala edo beste generoan nolakoak izatea gustatuko litzaiekeen marrazteari ekin zioten. Horregatik, bi neskek mutila ile luzearekin marrazteak eztabaida sortu zuen ikasgelan, mutil gehienek desadostasuna erakutsi zutelako. Haien ustez, mutilek ile motza eraman behar dute, nahiz eta beste ikasleren batek haren aitak ile luzea daramala esan edota amak motza. Horregatik, sortutako gatazkari irtenbidea emateko ilea desberdin daramaten gizon eta emakumeen argazkiak erakutsi zitzaizkien, iritzi horiek txikitatik barneratu dituzten genero estereotipoengatik ematen direla ikus zezaten. Era honetan, ilea bakoitzak nahi duen eran

eraman dezakeela ohartzeko gaitasuna erakutsi zuten, haien berdinekiko errespetua erakusteaz gain hitz egiterakoan txandak errespetatu zituztelako.

Halaber, mutilaren eta neskaren errepresentaziorako erabilitako jantzien, koloreen eta osagarrien analisisa eman zen, genero estereotipoak ageriz:

KATEGORIAK		PARTE HARTZAILEAK: NESKAK	PARTE HARTZAILEAK: MUTILAK	EMAITZA OROKORRAK (nagusitasuna)
Ezaugarri estetikoak	JANTZI MOTA: NESKA	SOINEKOA, BOTAK, GONA, ZAPATAK (ORPO ALTUKOAK) ETA KAMISETAK	GONA, SOINEKOA, ZAPATAK ETA BOTAK	SOINEKOA, BOTAK, GONA, ZAPATAK (ORPO ALTUKOAK) ETA KAMISETAK
	KOLOREAK: NESKA			
	JANTZI MOTA ETA KOLOREA: MUTILA	KAMISETA, PRAKA ETA ZAPATILAK	KAMISETA, PRAKAK ETA ZAPATILAK (FUTBOLEKOAK)	KAMISETA, PRAKAK ETA ZAPATILAK
	KOLOREAK: MUTILA			
	OSAGARRIAK: NESKA	BIHOTZA, KOROA, BALOIA, AURIKULARRAK, ERAZTUNAK ETA LOREAK	PANPINAK, MALABARISMOA, , LOREAK, SOKA ETA JANARIA (BROKOLI)	BIHOTZA, KORONA, SOKA, ERAZTUNAK, PANPINAK ETA LOREAK
	OSAGARRIAK: MUTILA	LOREAK, BALOIA ETA PIRATA KAPELA	BALOIA, AUTOA ETA ATEZAINDEGIA	BALOIA ETA AUTOA

5. taula. LH 1B gelako ikasleen datuak erabilitako arropen, koloreen eta osagarrien lotuta.

Analisiari hasiera eman baino lehen sozializazio-prozesuak haiengan era berean eragin duela azpimarratu nahi da, hurrek marraztu dituzten nesken eta mutilen artean parekotasunak eman direlako. Izan ere, neskaren errepresentaziorako erabili dituzten arropak (ikus 10.5.1. eranskina, 47. orrialdea) hauek dira: gonak, soinekoak, kamisetak, zapatak (orpo altukoak) eta botak.

Era honetan, hurrek egindako marrazkietan Emakundek (2008) egindako aipamena betetzen da, gurasoek haien alabak arropa eder eta dotoreekin jantzen dituztelako. Gainera, esanguratsua dirudi haien alabak ispilu aurrean daudela hiztegi bera erabiltzea, hau da, dotore, fin, ere, guapa, galant... Ikasgelan emaitzen inguruan hitz egin ondoren, kiroleko arropa gustatzen ez zaiela adierazi zuten neska dezentek, horren ordean, arropa jantziagoak nahiago dituztela adieraziz. Erosoak diren arropekin oker dabilzala pentsatzen dutenez,

haien marrazkietan printzesen antzera irudikatu dira, jantzita egokiago ibiliko direlakoan, osagarri eta guzti: belarritakoak, eraztunak, koroa (kasu batzuetan)... Bitxien erabilera estetiko nabarmena izan den arren, berehala ohartu dira haien kasuan belarritakoak erabiltzen dituztela soilik, edota ez daramatzatela. Horregatik, marraztu dutena ikus kulturaren bitartez garatu dituzten estereotipoak dira, ikasleek estetika hori gutxitan erabiltzen dutelako, beraz, 6 urterekin oso barneratuta dituzte generoaren ezaugarri estetikoak, nahiz eta haiek ez dituzten erabiltzen.

Mutilek haien ikaskideak diren emakumeak berdin ikusi arren, ez dituzte printzesa gisa definitu, era hartara identifikatzeko osagarrien (bitxien) falta eman delako. Hala ere, gai honekiko sozializazio-prozesuaren eragina jasan dutela nabari da, komunikabideetatik informazio dezente barneratu dutelako eta estereotipo horiek haien marrazkietan adierazi dituztelako, *Disney* plataforma genero estereotipoak haiengan zabaltzen dituen iturri argia izanik. Horregatik, argitaratzen dituzten pelikuletan printzesen nabaritasuna ematen da eta neskak, horiek antzeratzen saiatzen dira, pantailetan soineko luzeekin agertzen diren horien bizitza nahi izanez.




































































































Haurrak ikusle gisa dituzten programek oso genero zehaztuak eta ia karikaturak erakusten dituzte, nahiz eta egunotan pertsonaiak ez diren hasieran bezain estereotipatuak. Bitartean, haien irudikapenetan emakume ederrak, gazteak eta argalak egiten dituzte; emakume "itsusiak", gizenak, independenteak eta adimentsuak alde batera utziz (Míguez, 2015). Honenbestez, emakumeei edertasuna islatzeko ardua jasotzen dute, gizonei indarra izatea garrantzitsuena dela irakatsiz. Izan ere, mutilaren marrazkian egunerokotasunean ikasle gehienek eskolara jantzita dakarten arropa (ikus 10.5.1. eranskina, 47. orrialdea) islarazten da: kamisetak, prakak eta zapatilak. Beraz, kirol arropak, gurasoek alaben kasuan aplikatzen duten dotoretasun terminoari tokia kentzen dio, haien semeak arropa erosoekin janzten dituztelako. Emakundek (2008) aipatzen duenez, era honetan lagunekin edo haien kabuz baloiarekin jolastu dezakete, zikintzeko aukera izanik.

Halaber, ikasle askok mutilaren errepresentazioan marraztu duten osagarri nabariena baloia (ikus 10.5.1. eranskina, 47. orrialdea) da, naiz eta gutxi batzuk autoak eta loreak gehitu dizkieten. Txikitatik kirolak haien izaeraren zati izan behar duela irakatsi diete mutilei, futbolak eta saskibaloiak nagusitasuna izanik. Ikasgelan baloiaren erabileraren inguruan hitz egin zenean, ikasle askok astebururo gurasoekin jolasteko osagarri hau erabiltzen zutela aipatu zuten, edota telebistan osagarri hau erabiltzen duten kirolen partidak ikusten zituztela. Hortaz, ikasle askok txikitatik jaso duten estereotipoa da baloia eskuartearen eramatearena, ez dutelako aukerarik izan haien kabuz nahi duten jarduera aukeratzeko eta burutzeko.

Gainera, Gonzalezek (d.g.) dioen bezala, guraso asko harro daude haien seme-alabek praktikatzen duten kirol bera partekatzeaz, haurren inplikazioa handiago izaten delako.

Bestalde, haurrek egindako marrazkietan erabilitako koloreek genero estereotipoekiko informazioa adierazten dute, neska irudikatzeko erabili zituzten kolore gehienak argiak zirelako, nahiz eta nagusitasuna bi kolorek izan duten: arrosa eta morea. Aldiz, mutila marrazteko koloreak ilunak erabili zituzten; berdea, urdina eta beltza nabarmenenak izanik. Beraz, gizarteak generoaren arabera ezartzen duen kolore banaketa garatu dutela ikus daiteke, bai mutilek eta neskek kolore berdinak edo antzekoak bi kasuetan erabili zituztelako. Nabarmendu behar den eredu argiena kolore urdina arrosa bezain estereotipatua ez dagoela da. Izan ere, arrosa, neskekin erlazionatzen duten kolore dela ikusi da, jardueran zehar mutilek morea honen ordeztatu aplikatu dutelako. Errepresentazioan ordea, egia da ez direla kolore edota genero elkarzearen estereotipoak une oro errepikatzen, alderdi batzuetan oinordetzan jasotzen diren arren. Azken finean, emaitzen analisiak gure kulturaren txikitatik generoak bereizteko kolore-kodeak barneratzen ditugula ikusi da.

Lehen ekintzarekin amaitzeko, errepresentatu beharreko neskatoari eta mutikoari ekintza bat egiten marrazteko eskatu zitzaizkien. Horretarako, hurrengo taulan marrazkietatik lotu diren datuak ikono moduan adierazi dira, estetikoki erakargarriagoa izan zedin, hortaz, bakoitzak irudikatzen duena zehazki jakiteko 10.5.2. eranskinera (52. orrialdera) joatea gomendatzen da, ondoren datorrena ahalik eta egokien ulertzeko.

	PARTE HARTZAILEAK: NESKAK	PARTE HARTZAILEAK: MUTILAK	EMAITZA OROKORRAK																																																
EKINTZA MOTA: NESKA	<table border="1"> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%30</td> <td>%20</td> <td>%20</td> <td>%20</td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%10</td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> </table> <p>10 ikasle</p>					%30	%20	%20	%20					%10				<table border="1"> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%20</td> <td>%20</td> <td>%20</td> <td>%20</td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%5</td> <td>%5</td> <td>%5</td> <td></td> </tr> </table> <p>15 ikasle</p>					%20	%20	%20	%20					%5	%5	%5		<table border="1"> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%12</td> <td>%20</td> <td>%20</td> <td>%20</td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%16</td> <td>%4</td> <td>%4</td> <td>%4</td> </tr> </table> <p>25 ikasle</p>					%12	%20	%20	%20					%16	%4	%4	%4
																																																			
%30	%20	%20	%20																																																
																																																			
%10																																																			
																																																			
%20	%20	%20	%20																																																
																																																			
%5	%5	%5																																																	
																																																			
%12	%20	%20	%20																																																
																																																			
%16	%4	%4	%4																																																
EKINTZA MOTA: MUTILA	<table border="1"> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%60</td> <td>%20</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%10</td> <td>%10</td> <td></td> <td></td> </tr> </table> <p>10 ikasle</p>					%60	%20							%10	%10			<table border="1"> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%75</td> <td>%20</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%5</td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> </table> <p>15 ikasle</p>					%75	%20							%5				<table border="1"> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%68</td> <td>%8</td> <td>%4</td> <td>%4</td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>%12</td> <td>%4</td> <td></td> <td></td> </tr> </table> <p>25 ikasle</p>					%68	%8	%4	%4					%12	%4		
																																																			
%60	%20																																																		
																																																			
%10	%10																																																		
																																																			
%75	%20																																																		
																																																			
%5																																																			
																																																			
%68	%8	%4	%4																																																
																																																			
%12	%4																																																		

6. taula. LH 1B gelako ikasleen datuak irudikatutako ekintzei lotuta.

Ekintza honetan aurrera eraman den errepresentazioan irudikatu dituzten ekintzen analisi labur egitea beharrezkoa da, pertsonok dugun generoaren arabera jarduera batzuk edo beste egin ditzakegunaren ideia garatu dutelako. Honetan, eskolatik kanpo lagunekin, gurasoekin... egiten dituzten jarduerari erreparatu zietela adierazi zuten askok, parekotasunak egon arren sexu eta ekintzen inguruan genero estereotipo argiak egonik. Alde batetik, neska marrazterakoan hiru jarduera berdin adierazi dituzte parte-hartzaileek (mutilek eta neskek): saskibaloia, musika, dantza eta paseoa. Parekoak izateak on egiten du, ikasle askok mutilek eta neskek ekintza berdinak egin ditzaketela sinesten dutelako, eta hala izan beharko luke. Hala ere, ikasle baten kasuak irakasle taldeari harritu egin zion, emakumea kirola egiten aritzeaz gain brokolia jaten marraztu zuelako (ikus 10.5.1. eranskina, 6. irudia, 50. orrialdea). Honetan, ikasleak faktore askoren eragina jasan duela pentsatu genuen, musulmana delako eta haren etxean erlijioaren jarraitzaile sutsuak direlako. Gaian sakondu nahi ez arren, esan genezake eragin horren ondorioz gizona emakumearen gain dagoela pentsatzen duela.

Kirolaren jarraitzaile diren emakumeak marrazteaz gain, gizarteak neskentzako ezartzen dituen jarduerak adierazi dituzte ikasleek: paseoa, panpinen erabilera, lore-sorten osaera... Dirudienez, neskei trebetasuna, malgutasuna eta harmonia biltzen dituzten jarduerak esleitu nahi dizkiete, mutilei futbola eta saskibaloia bezalako kirolak egiten marraztu bitartean. Hau da, lehiakortasuna eta kontaktu fisikoa eskatzen duten ekintzak egiten ari diren gizonak errepresentatu dituzte hurrek, nahiz eta ikasleren batek loreak jasotzen edota globoekin jolasten irudikatu.

Sexuaren arabera sortzen den kirolen banaketa deuseztatzen duten haurrak egotea interesgarria dirudi, eskolatik kanpo (gurasoen laguntzak) genero estereotipoei uko egiten ari dietelako. Eskolan aldaketak eman daitezen eta ikasle guztiek batera jolas dezaketela ikus dezaten, hezkuntza fisikotik at patio orduan taldearekin kirolak praktikan jartzen hasi dira, sokasalttoa, esate baterako. Izan ere, guztiok nahi duguna egiteko eskubidea dugula esaten duten arren, barneratuta duden diskurtsoa ez dator bat paperean marraztutakoarekin, ikasle askok haien sexukotzat hartzen ez diren jarduerak deuseztatzen dituztelako. Horiek praktikan jartzeko beldur direla esan daiteke, besteek esango dutenaren arabera aldenduak izango direla pentsatzen dutelako. Hala ere, ikasgelan ez da bazterketa kasurik eman ikasleek eskolatik kanpo egiten dituzten ekintzekiko.

6.1.2. Maitasun erromantikoa

Jarduera honetan egun argitaratuta dauden liburu askotan adierazten den maitasun erromantiko kontzeptuaz kontziente diren jakiteko balio izan du. Horretarako, klasean irakurri zen liburuari kritika egiteaz gain, gustuko luketen amaiera komiki gisa adieraztea eskatu

zitzaien. Izan ere, 6 urteko haur dezentek ez ziren gai nahi zuten oro idatziz adierazteko, beraz, irudi eta gogoeten bitartez, analisi egokiagoa burutu zitekeela pentsatu zen. Gainera, ikasle bakoitzak berea sortzeko aukera izango zuenez, irakurtzen dituzten liburuetan tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeak agertzen direla ohartu diren jakiteko balio du.

Literatur-lan asko ikuspegi androzentriko eta misogino batetik idatzita daudela ikus daiteke. Kontakizunetan adierazten denez, printzea printzesaren salbatzailea da, indartsua, adorea betea, dominatzailea... Aldiz, printzesa, beldurtia, ezta eta zaugarria da. Horregatik, LH 1B gelako ikasleak egoera hauetaz kontziente izateaz gain, paperean haien kritika burutzeko gai diren ikusi nahi da, printze urdinaren eta printzesaren mitoarekin amaitzeko. Gaur egun, ikasle askok honelako telesailak eta liburuak kontsumitzen dituzte eta, kontura gabe, hauetan adierazten diren genero estereotipoak barneratzen dituzte, etorkizunean imitazio atxikimenduaren bitartez horiek era batean edo beste adieraziz.

	PARTE HARTZAILEAK: NESKAK	PARTE HARTZAILEAK: MUTILAK	EMAITZA OROKORRAK
MAITASUN ERROMANTIKOARI UKO: BAI	%70 (7/10)	%47 (7/15)	%56 (14/25)
MAITASUN ERROMANTIKOARI UKO: EZ	%30 (3/10)	%53 (8/15)	%44 (11/25)

7. taula. LH 1B gelako ikasleen datuak maitasun erromantikoaren kritikarekiko⁴.

Liburu askok adierazten duten mezu matxistaz oartzeko sortu den jarduera hau, gehiengoa maitasun erromantikoa kritikatzeko gai dela ikusi da, ikasleen %56ak, hau da, 14 pertsonak hala egin dutelako. Istorioan zehar printzesak jasotzen ari dituen tratu txarrez ohartu dira eta, egoera kritikatzeko, irtenbide desberdinak proposatu dituzte amaiera gisa. Jarraian, esanguratsuenak aipatzen dira:

- *“Printzesak printzeak oparitutako zapata takoidunak kentzen ditu eta aske sentitzen da. Txikitan bizi zen gaztelura itzuliko da eta nahi duena egingo du, esan ahal diotenaren edo egin dezakeenaren mende egon gabe”.*
- *“Zapatak kendu eta printzea ezagutu aurretik zen pertsona alaia da. Triste eta goibel egon ondoren (printzeak nahi zuena egiteko bizi zelakoan), nahi duena egiteko aukera du, eta horrelako aukerak izan behar dituzte emakumeek. Gizartean gizonak ikusita gauden antzera, neskek ere aske sentitu behar dira”.*

⁴ Hurrek maitasun erromantikoari uko egin dioten jakiteko, bakoitzari komikian adierazitakoa irakasleari ahoz esateko esan zaie. Era honetan, egoera kritikatzeko gai nortzuk diren ikus daiteke.

Halaber, printzearen ordezeko mutikoa den lagun bat adierazi zuten askok, hau da, ez dute printzesak ezagutu duen beste gizona printze edo bikotetzat hartzen. Hortaz, printzesek bizitza salbatuko dien printze baten bila dabiltzan ideiarekin amaitu nahi dute, lagunak izatearen ideiak tokia hartuz. Honen bitartez mezu garrantzitsu bat adierazten ari dira, askotan mutil eta nesken arteko harremanak bikote gisa hartzen direlako eta sexu berekoak ez diren pertsona lagun ere izan daitezkeela aldarrikatzen dutelako. Gainera, haien adinean honelako txantxak normalak direnez, interesgarria da ikasle askok egoera horiek ekiditeko gai direla ikustea.

- *“Printzesak printzea utzi eta etxetik bota du. Orain askatasuna du nahi duena egiteko. Beste mutiko bat ezagutu du eta harekin dabil jolasean. Lagunak dira”.*

Bestalde, ikasleen %44a ez da egoeraz kontziente izan, istorioan zehar adierazten den maitasun erromantikoaz ohartzeko zailtasunak izan dituztelako. Honetan, nahiz eta printzen berdinarekin ez joan, haren bizitza salbatuko duten beste printze batekin joatea egokiena zela pentsatzen zuten askok.

- *“Printzeak oparitutako takoiak kendu eta aske sentitzen da, baina ezin da bakarrik egon eta beste printze bat ezagutzen dut. Honek oparitzen dizkion takoiak jarri eta alai sentitzen da”.*
- *“Printzesa beste printze bat ezagutu eta berarekin doa”.*

6.1.3. Lanbideak generoaren arabera

Emaitzak aztertu ondoren, haurrek lanbideak generoaren arabera bereizten dituztela ikus daiteke. Egun, nahiz eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekiko asko aurreratu den (aitona-amonen egoerarekin konparatuz), emakumea desabantailan egotea eragiten duten desberdintasunak ematen dira. Izan ere, egungo lan-merkatua aztertzen bada, ikusiko da lanpostuen banaketa estereotipo sexisten arabera banatzen dela, emakumeak tradizioz edo “ohituraz” haientzat diren lanpostuetan (garbiketa, erizaintza, irakaskuntza...) jardunez, gizonen kasuan (eraikuntza, medikuntza, irakaskuntza, mekanika) egoera berdina emanez.

Honenbestez, haurrek egindako errepresentazioekin, lanbideak sexu eta generoaren arabera banatzen dituzten ikusi nahi da, aurretik aipatu diren faktoreak kontuan hartuz. Gainera, haien etorkizunean pentsatzen hasi dira eta askotan horren inguruan galdetzen zaienez, gerta liteke inguruan dituzten pertsonengatik lanbideekiko eragina jasaten aritzea. Hortaz, eragileen partetik jasotzen duten informazio honek haien etorkizuna kaltetzen duela esan ohi da, askatasunez nahi dutena aukeratzeko neurriak ezartzen zaizkielako. Horren arabera, hauek diren lanbide bakoitza errepresentatzerakoan lortu diren emaitzak:

LANBIDEAK	PARTE HARTZAILEAK: NESKAK		PARTE HARTZAILEAK: MUTILAK		EMAITZA OROKORRAK	
	NESKA	MUTILA	NESKA	MUTILA	NESKA	MUTILA
IRAKASLEA	%70 (7/10)	%30 (3/10)	%27 (4/15)	%73 (11/17)	%44 (11/25)	%56 (14/25)
GARBITZAILEA	%60 (6/10)	%40 (4/10)	%33 (5/15)	%67 (10/15)	%44 (11/25)	%56 (14/25)
ERIZAINA	%100 (10/10)	% -	%53 (8/15)	%47 (7/15)	%68 (17/25)	%32 (8/25)
MEDIKUA	%20 (2/10)	%80 (8/10)	%7 (1/15)	%93 (14/15)	%12 (3/25)	%88 (22/25)
SUHILTZAILEA	%40 (4/10)	%60 (6/10)	% -	%100 (15/15)	%16 (4/25)	%84 (21/25)

8. taula. LH 1B gelako ikasleen datuak lanbideen jarduerarekiko.

Jarraian, suhiltzailearen kasuari helduko zaio, aurretik aipatu denaren eredu garbia delako. Izan ere, ikasleen %84ak mutila (ikus 10.5.3 eranskina, 13. irudia, 54. orrialdea) marraztu zuen, ziotenez, inguruan dituzten komunikazio eta informazio tresnetan hala irudikatzen delako eta egunerokoan suhiltzaile diren gizon gehiago ezagutzen dituztelako. Gainera, suhiltzaile paperean neska (%16a) marraztu zutenek, gelako neska talde bat izateak esanguratsua dirudi, mutilek zuzenean emakumearen papera lanbide honekiko deuseztatu zutelako. Mutil edo neska irudikatzeko arrazoiak izango zituztelakoan, erabaki hura zergatik hartu zuten galdetu zitzaizen. Honetan, komunikabideetan edota egunerokoan ikusten dituzten suhiltzaile gehienak mutilak direla aipatu zuten, nahiz eta emakume batek suhiltzaile izateko eskubide osoa duen goraiatu.

Halaber, mediku eta erizain bat marrazteko ahaleginak egin zituzten. Kasu honetan, lanbide bakoitzari zein genero ezarriko zioten jakitea zen helburu nagusia, egun mediku diren gizon gehiago daudelako, erizainaren kasuan kontrako egoera emanik. Beraz, biak osasuna barne dauden arren, sexu eta generoaren arabera desberdintasunak ematen direla ikusi da, bata bestearen gain egonik. Izan ere, %86ak emakumea erizain eta %88ak gizona mediku marraztu zuen (ikus 10.5.3. eranskina; 10, 12 eta 13 irudiak; 52. orrialdea), haien ustez egun ematen den errealitatea hori delako. Gainera, bi ikaslek medikuak erizainak baino arrisku gehiago jasaten zituela zioten, horregatik maila berean ez daudela aipatuz. Ikasleek egindako testigantzari aurre egiteko, ikasle baten ama mediku zenez ikastetxetik aukera eman zitzaion lanbidearen inguruan hitz egitera etortzeko, lanbide bakoitzak bere arriskuak dituela konturatu zitezten. Ondoren, ikaslek askok bakoitzak nahi duen lanbidea izateko aukera izan beharko lukeela aipatzen hasi ziren, egoerari aurre egiteko eta haien

jarrera genero estereotipoekiko aldatzeko prest zeudela ikusiz. Horretarako, ezinbestekoa zen haien arteko elkarbizitza sustatzea, haien ikaskideengatik ikasteko aukera izateko, besteen iritziak entzuteko eta errespetatzeko eta haienak konpartitzeko...

Bestalde, garbitzaile eta irakasle diren langileak marrazteko arazoak izan zituzten, ikastetxean lanbide hauekiko bi generoak ematen direlako. Kasu hauetan, ez zuten argi izan zein sexu marraztu, hau da, dudatan ibili ziren genero bat edo beste irudikatzeko. Askok bi irakasle eta garbitzaile marraztu zituzten (ikus 10.5.3 eranskina; 10-12 irudiak; 52. orrialdea), lanbide hauetan gizonetzkoak eta emakumezkoak daudela aldarrikatzeko, beraz, %44ak neska eta %56ak mutila diren irakasleak marraztu dituzte. Hala ere, kontziente dira egun Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntza hezitzaile gehienak emakumeak direla eta gizonetzkoa izatekotan Hezkuntza Fisikokoak direla.

Garbitzailearen kasuan emaitzekiko parekotasunak eman ziren, nesken kasuan %66ak emakumea eta, gizonen, %67a mutila marraztu zutelako. Egindakoaren inguruan galdetu zitzairen eta ez zuten argudio zehatzik eman, askok galdera honekiko pasibotasuna erakutsiz. Hala ere, jarduera amaitzerako lanbideek generorik ez dutela ohartu ziren, guztiok nahi duguna egiteko aukera dugula esanez. Bistan da ikasitako diskurtsoa eta paperean adierazitakoa ez datozela bat ahoz esaten dutenarekin, ingurukoek haien gain ezartzen duten botereaz ohartzen ez direlako eta, adinari erreparatu ezker, egoeraz kontziente izateko zailtasunak dituztelako, txikiegiak baitira.

6.1.4. Emakume erreferenteetan oinarritutako horma-irudia

Unitate didaktikoari amaiera emateko diseinatu den jarduera honetan, ikasleek ikasi duten oro mural bati esker adierazteko aukera izan zuten. Izan ere, egindakoa borobiltzeko erabili den horma-irudi honen bitartez, Madril inguruan martxo hasieran suntsitu ziren emakume erreferenteen muralei egin nahi izan zaie keinu, egun gizartean honelako gaiak lantzen dituzten irudi plastikoak onartuak ez direlako. Honen bitartez, bi gauza lortu nahi dira: honelako lanen egoera normalizatzea eta hurrek irudi-grafikoa aldatzeko eta ikasitakoa marrazki bidez adierazteko gai diren aztertzea.

Horma-irudia sortzeko, aurreko ataleko lau emakume erreferente aukeratu zituzten, eskolan horien nagusitasuna eta lanketa beharrezkoa dela erakusteko. Muralean agertuko ziren emakumeen aukeraketa haien kabuz egin zuten, bakoitzak adierazten zituen aukerak entzunez eta errespetatuz, guztien iritziek tokia izanez. Honetaz gain, errepresentazioa aurrera eramateko kolore guztiak aplikatzea erabaki zuten, generoaren arabera arrosaren eta urdinaren arteko eztabaidarik eman gabe. Orokorrean, aurreko jardueretan egindako gogoetekin geratu dira eta guzti horiek adierazteko ahaleginak egin dituzte, dinamikan zehar

talde txikiko eta handiko dinamikak nahastuz. Izan ere, COVID egoera dela eta txandak egin behar izan dira jarduera aurrera eramateko, 25 ikasle mural (ikus 10.5.5 eranskina, 55. orrialdea) baten aurrean lan egiten jartzea egun dauden neurriak medio ezinezkoa zelako. Hala ere, talde handian egindakoaren analisi txiki bat egiteko aukera egon da:

- Kolorea: kolore guztiak erabili dituzte, urdina eta arrosaren arteko bereizketa alde batera utziz eta kolore argiak eta ilunak haien lanean aplikatuz.
- Emakume erreferenteak: lanbide ezberdinen bitartez pertsona bakoitzak nahi duena egiteko aukera duela erakutsi nahi dute, bata bestearen gain ez dagoela bistaratuz.
- Eskuen katea: berdintasuneranzko bidea guztion helburu dela erakutsi nahi izan dute, guztiok batera eskutik helduta lan eginez lortuko dugula irudikatuz.

Adierazpen grafikoa baliabide didaktikotzat gustuko dutela ikusi arren, noizean behin mezuak irudi bitartez adierazteko zailtasunak dituztela adierazi zuten. Honetan, hitzak erabiltzeko aukera eskaini zitzaion, unitate didaktikoan zehar ikasitako guztia jakitea garrantzitsua zelakoan. Beraz, haien artean adostutako esaldi laburrak arbelean idatzi ziren, ondoren horma-irudian zeintzuk idatziko zituzten erabakitzeke: nahi dudan modura ibil naiteke; gai naiz edozer gauza egiteko; ez dizkidate limiteak jarri behar; guztiok gara berdinak; nahi dudan arropa jantzi dezaket, margotzeko edozein kolore erabili dezaket; ilea nahi dudan bezala eraman dezaket; guztiok eskubide berdinak izan behar ditugu...

6.2. Hitzen bidezko azalpenen analisisia

6.2.1. Etxeko zereginak⁵ generoaren arabera

Egun, familien etxeko lanen banaketak makina bat eztabaida sortzen ditu, nahiz eta gehienetan, etxeko lanen ardura emakumeei egokitzen zitzaion. Baina, gero eta gizonezko gehiago ikusten dira paper honetan, biek etxetik kanpo lan egiten dutelako eta lan hauekiko bidezkoa den banaketa bat beharrezkoa delako. Horretarako, ordaindu gabeko etxeko lanak adierazten zituzten jarduerak marrazteko eskatu zitzaion ikasleei, ondoren horiek haien etxeetan nork egiten zituen adierazteko: janaria prestatu, ohea(k) egin, erosketak egin...

Ekintzen inguruan eztabaidatu ostean, egun ere etxeko lanak emakumeen kontu izaten jarraitzen dutela nabaritu zen, ikasleen ustez etxe askotan haien amek jasotzen duten ardura delako. Adierazi diren jardueren %50a emakumeen kargu geratzen da eta gainontzekoa bien artean egiten dute (ikus 10.5.4 eranskina, 54. orrialdea), hau da, aitek

⁵ Hasieran, aniztasuna bermatzea espero zen, egun familia eredu/mota anitz daudelako: guraso banatuak, homosexualak, ama ezkongabeak... Aldiz, ikasleak familia eredu heteronormatiboetan oinarritu direla ikusi da, haien egoera eredutzat hartu dutelako, hau da, bikote edo gurasoena, ama eta aita protagonista dituen.

(orokorrean) ez dute haien kabuz ezer egiten. Ez dute etxeko lanekiko inizatibarik aurkezten, alboan duten pertsonari lana kentzearren. Orokorrean, emakumeak dira, nagusiki, ordaindu gabeko etxeko lan hauek egiten dituztenak, nahiz eta biak haurren, adinekoen eta gaixoen hezkuntza eta zaintza lanen ardura hartzen duten. Arropa garbitzeaz, lisatzeaz eta tolesteaz eta otorduak planifikatzeaz, erosteaz, prestatzeaz eta garbitzeaz ere arduratzen dira.

Banaketa honen aurrean, ikasle asko harrিতuta geratuta ziren, haien aitek etxean lan gutxi egiten dutela ikusi zutelako. Ez zeuden ados arbelean ikusten ari zirenarekin, nahiz eta jarduera hasi aurretik lanak bien artean banatzen zituztela aipatu. Arrazoi baten bila pentsatzen hasi arren, aurreko atalaren antzera jarrera androzentrikoek (nahiz eta inkontzienteki izan) gizartea kaltetzen ari zutela ohartu ziren. Etxe askotan egoera aldatzeko beharra dagoela ikusi zuten, justua ez izateaz gain guztien ardura delako etxeko lanetan laguntzea, baita haien ardura ere. Gainera, gizona gizartean emakumearen gain egon beharko ez lukeela goraiatu zuten, guztiak berdín onartuak eta tratatuak izan beharko ginatkeela adieraziz. Beraz, guztiok bat egingo bagenu, etorkizun hobeago bat lortu daitekeela adierazi zuten. Honi esker, ikasleen pentsamendu kritikoa garatu dela ikus daiteke, haien artean helburu finko eta gogoeta interesgarriak sortu direlako, taldean gaiaren eta lortutako ematen inguruan hausnartu eta argudiatu ondoren.

Aitzitik, jarduera honetan ikasle gehienek esandakoaren arabera funtzionatu da, hau da, gehiengoak esaten zuena kontuan hartuz erabakitzen zen ekintza gizonak edo emakumeak egiten zuten, egun etxeko lanen ardurak bere gain hartzen dituzten aitek ere badaudelako. Haien aitek etxeko gizon direla aipatu zuten ikasle batzuk, haiek txikiak direnetik biek etxeko lanak banatu dituztela aipatuz. Kasu hauetan, egun erdia (bata goizean eta bestea arratsaldean) bakoitzak hauen ardura jasotzen duela adierazi zuten, haien arten antzeko patroiak erakutsiz. *“Goizean aitek erosketak eta otordu guztiak antolatzen ditu. Aita sukaldako terrenoaz arduratzen da, eta gero eskolara eramaten gaitu. Guri garbitzeaz eta medikura eramateaz arduratzen da”*. Beraz, haien amak etxeko garbiketaz edo, hobe adierazita, sukaldetik kanpo dauden garbiketez arduratzen direla adieraz zuten, lan horiek arratsaldean eginez. Atal honetan, hezkidetzak lantzen duen hezkuntza eredu baten beharraz ohartzeaz gain, zehar-konpetentziak garatzen hasi direla adierazi nahi da.

6.2.2. Emakume erreferenteak

Jarduera honetan, erabiltzen dituzten baliabide desberdinetan agertzen diren emakume erreferenteak zeintzuk diren galdetu zitzairen. Ikasle gutxik erantzun zioten galderari, zientzialariren bat ezagutzen zutela adieraziz: Marie Curie. Orokorrean, emakumearen eredia eskolan erabiltzen diren materialetatik kanpo geratzen dela ikus

daiteke, hauen irudia arlo askotan bigarren plano batean geratzen delako eta ikasleek ezagutzen ez dituztelako. Aldiz, erreferente maskulinoen inguruan galdetu zitzaienean, gizon ugari ezagutzen zituztela aipatu zuten, egun komunikabideetan famatu diren kirolariak (futbolariak, saskibaloi jokalariek...) eta liburuetan agertzen diren pertsonaiak, zientzialariak, etab. aipatuz. Horregatik, jarduera honen bitartez emakume erreferenteak ere badaudela erakutsi nahi izan zaie, haiekiko interesa pizteko, horien bizitzaren berri eta egindako aurkikuntzez kontzientzia izateko eta nahi dugun lanbidean aritu dezakegula erakusteko.

Egun ezagutzen duten mundua gizonen soilik sortu ez dutela irakatsi behar dute, emakumeek egindako ekarpen bereziek gure inguruan positiboki eragin dutelako. Horretarako, Errekabarri ikastetxeko LH 1B gelako ikasleei *Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes* liburuan agertzen diren emakume desberdinen biografia labur batzuk irakurri zitzaizkien, bakoitzaren amaieran esanguratsuen orri batean bildu zezaten, amaieran liburuxka irudiekin osatzeko (ikus 10.5.6. eranskina, 55. orrialdea). Guztira hamar emakume erreferenteren informazioa jaso zen, ikasleen interesa pizten zutenei lehentasuna emanez: Kleopatra, Marie Curie, Serena eta Venus Williams, Ashley Fiolek, Hellen Keller, Frida Kahlo, Isabel Allende, Zaha Hadid...

Ikasleek emakumeek egindako ekarpenekin gustura geratu ziren eta askotan aipatu zuten, *“gizonen antzera, neskek nahi dutena egin dezakete, ezin zaizkie trabak jarri”*. Osatutako liburuxkari esker, emakume erreferenteen inguruko informazioa barneratzeaz gain, edozein lanbidean aritzeko gai direla ikusi dute eta horien istorioekin identifikatzen hasi dira batzuk. Gainera, eskolan eskaintzen zaizkien ordu libreetan, ikasleek emakume erreferenteen liburuxkak banaka sortzen hasi dituzte, abentura desberdinak bilduz. Emakume erreferente gehiago irakurtzeko gogoz geratu ziren, beraz, honelako jarduerak eskolan egitea eramatea komenigarria dela adierazi dute jarduera amaitzean.

Bai emaitza grafikoak bai umeen hitzak aztertu ostean, ikusi da generoen arteko desberdintasunak nabariak direla Lehen Hezkuntza hasieratik. Diseinu didaktiko honen bidez aztertu da haurrak gogotsu zenbiltzala gizarteak ezarritako genero estereotipoak deseraikitze edo berregiteko, horretarako beharrezkoak ziren ahaleginak egiteko prest egonez. Ez zeuden ados hasiera batean lortutako emaitzekin eta beharrezkoak ikusten zituzten honelako jarduerak ikasgelan aurrera eramatea. Haien irudi grafikoa aldatu dela ikusi da, nahiz eta bidea luzea den, izan ere estereotipoak adinaren arabera aldatzen doa eta gizarteak ez dago prest hauekin amaitzeko. Hala ere, egunen batean horiekin amaitzea posible izango dela pentsatzen zuten ikasle gehienek, egindako horma irudia ikastetxeko korridore batean jarri bitartean.

7. ONDORIOAK

Ikerketa honi esker, hurrei inguratzen dien orok iruditegian eragiten diela aztertu da, genero estereotipoak txikitatik garatzen dituztelako: fisikoarekiko, arroparekiko, koloreekiko, kirolarekiko, jostailuekiko, lanbideekiko... Arestian aipatu denez, gizakia izaki soziala da eta jaiotzen denean hazi gabe dagoenez, etengabeko estimulazioa eta informazioa jasotzen du inguruan dituen pertsonengandik, bere izaera osatzen joan dadin. Era honetan, sexu bakoitzarekiko ezarrita dauden irudi idealizatuek haurren auto-estimua eta auto-kontzeptuan gogor jo dezaketela ikusi da, bizitza osorako ondorio larriak eraginez. Gainera, gizakiak norbanakoaren sexukotzat ez diren erabakiak hartzean, ikusizko kulturak epaitzeko irizpide okerrak eskaintzen dizkie ingurukoari, besteekiko begirunea arriskuan jarriz. Hau da, betidanik hurrek genero estereotipoen eragin goiztiarra bizi dutela ikusi da, ikerketarako aurrera eraman diren ekintzen bitartez. Horregatik, beharrezkoa dirudi hurrei ahalik eta lehenen genero-estereotipoez ohartzeko laguntzea eta horiek ekiditeko bideak eraikitzen laguntzea, ikuspuntu kritikoa garatzen den heinean.

Mutil eta nesken irudian sakondu orduko, lehenengo mailako ikasleek gizartean generoarekiko ezarrita dauden estereotipoak barneratu dituztela ikusi da, ikerketa honen helburuetako bat zena. Hortaz, ikasleriak sozializazio-prozesuak bidean jartzen dituen eragile askoren ondorioz genero-rolak eta estereotipoak barneratu dituztela aztertu da, sexu eta generoaren arabera bidea eraiki dietela jakinez, ingurukoek onartu ditzaten. Horien artean, haien ustez eta gizartean askok pentsatzen dutenez, mutil eta nesken zako diren kirolak esleituta daude. Gizonek oldarkortasuna, lehiakortasuna eta kontaktu fisikoa eskatzen duten jarduerak (futbola, saskibaloia...) praktikatzeko dituzte, eta neskek trebetasuna, malgutasuna eta harmonia helburu duten kirolak (dantza, paseoa...), marko teorikoan aipatzen den bezala. Orokorrean, parte-hartzaileentzat gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako kirol desberdinak esleitzen dira, jardueran egiteko eskatu zaien irudi plastikoetan adierazi duten antzera. Horregatik, haien sexukotzat ezarrita ez dauden jarduerak alde batera uzten dituzte, ikasleren batek kontrako sexukotzat hartzen direnak eginez gero ikasle batzuk taldeetik aldentzeko joera izanez.

Genero eta kirolaren harremanarekiko sortzen diren desberdintasunez gain, lan honen emaitzek lehenengo mailako ikasleek jaiotzetik ezaugarri estetikoekiko estereotipoak garatu dituztela erakutsi dute. Izan ere, haurrak sexuaren arabera jantzen dira eta, kasu honetan, Emakundek 2008an egindako aipua betetzen da, neskek dotore jantzita ibili behar direlako (soineko eta gona ugari jantziz), mutilek egunerokotasunean txandala darabilten bitartean, jolasean eroso sentitu daitezela. Egun egoera aldatu den arren, ikasleek estereotipo hau garatu dutela ikusi da, haien marrazkietan azaldu berri den egoera eman

delako, nahiz eta orokorrean emakumea soinekoarekin marraztu dutenak neskak izan diren, marko teorikoan adierazi den bezala. Gainera, sexuaren arabera koloreen banaketa ematen dela ikusi da, neskei kolore argiak eta mutilei esleitzen zaizkielako, osagarri desberdinak ezarriz eta, erreferentzia eginez gero, ile luzea neskentzat eta motza mutilentzat ezartzen dutela ikusi da, ikasle gutxi batzuk kontrako kasuak adierazi dituzten arren.

Halaber, sexuaren arabera jostailu batzuk edo beste erabiltzeko aukera ematen zaiela aipatu dute, horiek arestian aipatu den kirol eta sexu arloan eraginez. Izan ere, mutilei kirolarekin bat datozen osagarriak (baloiak, sokak...) erabiltzeko aukera ematen zaie, neskak, panpinekin, sukaldeekin... dabilzan bitartean. Honek, etorkizun hurbilean lanbidea aukeratzeko orduan ere eragiten duela aztertu da, emakume askok espazio pribatuetan lan egiten joera dutelako, hau da, etxeetan. Hortaz, txikitan sukalde bat oparitzeak eta heldua izaterakoan neska askok etxean lan egiteko erabakia hartzea kasualitate hutsa ez dela esan daiteke, lana parekoa delako. Gainera, egun emakume askok espazio publikoetan lan egin arren, eduki beharko luketen prestigioa ez dutela ikusi da, gizonen maila berean egon beharko lirakeelako. Egun mantentzen den sistema patriarkal honetan mutilek baino pribilegio gutxiago dituztela ikusi da, beraz, normala dirudi sexuena arteko desberdintasunak egotea. Lan merkatua aztertu ezker, lanpostuen banaketa estereotipo sexisten arabera banatzen dela ikusiko da, emakumeak tradizioz edo "ohituraz" haientzat diren lanpostuetan jardunez, gizonak berdinarituz.

Irtenbideen bila hasi ezker, hezkidetzaren bultzatzen duen proiektu baten bitartez ikasleek gaiarekiko kontzientzia izatea lortuko litzateke, eskolan erabiltzen dituzten materialak aldatzen hasiz. Hezkuntzak, generoarekiko jarrera neutrala erakusten duen arren, askotan, matxista ere bada, eredu femeninoak erabiltzen dituzten baliabideak gutxitan agertzen direlako. Izan ere, emaitzek haurrek emakume erreferenteen falta dutela erakusten dute, oso gutxi baitira ezagutzen dituztenak. Aldiz, gizon erreferenteen inguruan galdetzen zaienean anitz aipatzeko gai direla erakusten dute: kirolariak (gehienbat), politikariak, zientzialariak... Horregatik, aipatu diren datuak lortzeko erabili den metodologia lagungarria izan dela adieraztea beharrezkoa da, ikerketan zehar eman diren hitzen bidezko adierazpenen eta marrazkien bitartez, kontraesan esanguratsuak identifikatzeko aukera eman delako, haiek sortutako irudietan genero estereotipoak pil-pilean ageri direlako. Izan ere, hitzen bidez ikasleek mutil eta nesken artean ezartzen diren estereotipo gutxi adierazten dituzte, guztiok eskubide berdinak ditugula eta erabakiak hartzeko askeak garela adieraziz, nahiz eta ikasita duten diskurtsoa marrazkietan adierazitakoaren bat ez datorren.

Arestian aipatu diren genero estereotipo eta rola barneratuta zituzten ohartzeko, bigarren helburu orokorra, haurrek eskuratu dituzten genero estereotipoak irudi eta

ekoizpen-plastikoak metodotzat zituen unitate didaktiko bat diseinatzea zen, horiek lantzeko eta ezabatzen saiatzeko. Honen bitartez, prozesuan zehar eman diren aldaketez ohartzeko aukera eman da, lehendabizi estereotipoez ohartzuz eta, ondoren burutu diren ekintzei esker aldaketez jabetzeko. Ikasleek generoarekiko zituzten aurreiritziak ezabatzeko artearen eta irudizko hezkuntzaren eta tutoretzak batzea funtsezkoa izan da, emaitzak jasotzeko (hitzen bidezko adierazpena eta grafikoak) eta hauen analisia egiteko, proposamena ahalik eta egokien burutu zedin. Ikerketaren bigarren zati honi dagokionez, egun martxan dauden metodologia berriei esker ikasleen parte-hartze aktiboak irakaskuntza eredu magistrozentrak baino erantzukizun handiagoa duela ikusi da, ikasleek haien artean elkartzeko, iritziak partekatzeko eta errespetua oinarri izanik adosteko aukera dutelako, neskak eta mutilak modu berean heziz eta zehar-konpetentziak lantzeko aukera izanez.

Azken finean, erabili den metodologiari esker, proposamen honek ikasleen pentsamendu kritikoa izan duen sakoneko aldaketa egiazatu ahal izan da, gaiarekiko zituzten aurreiritzien antzera. Aldaketa efektiboak izan direla ikusita etorkizunean proposamen aurrera eraman ezker diseinatu den unitate didaktikoa diziplinarteko proiektu bilakatzea interesgarria dirudi, ikasgai batean barneratutako edukiak beste ikasgai batean landutakoarekin erlazionatu eta aplikatu daitekeelako. Hala ere, proposamena diziplinarteko proiektu bilakatzeko aukera eman dela adierazi nahi da, gaztelaniako klaseetan plataforma desberdinetan generoarekin harremana duten bideoak landu direlako, ikasleak txikitatik garatuta dituzten estereotipoen aurka jarritz. Proposamena hasita zegoen, beraz, eginda zeuden jarduerak beste arloetan gaia lantzerakoan efektua sortu dutela aztertu da.

Bestalde, LHko 1. mailako ikasleak haien iritziak hitzen bidez adieraztera ohituta daudenez, ekintza bakoitzaren amaieran ikasi dutena jakiteko eta aldaketez ohartzeko. Horretarako, talde handian lan egiteko aukera eman zaie, pentsamendu kritikoa eta haien artean curriculumak ezarrita dituen zehar-konpetentziak lantzeko. Gainera, haurrek haien ikaskideengandik genero estereotipoen atxikimendua txikitatik jasan dutela ohartzea ezinbestekoa da, aldaketarako, hau da, barneratu dituzten aurreiritziak ezabatzeko prest egon daitezen. Izan ere, haurrak egun dugun gizarte matxistaz jabetu behar dira, kontrako kasuan aldaketarako prest egongo ez liratekeelako. Hala ere, esku-hartzearen amaieran ikasle taldeak osatu duen emakume erreferenteen muralari erreparatuz gero, barneratuta zituzten estereotipoekiko aldaketa nabarmenak eman direla ikusi da, sexuaren arabera erabakiak hartzeko ditugun mugez haratago ikusteko aukera erakutsi dutelako, bakoitzak nahi duena egiteko aske izan beharko litzatekeela aldarrikatuz. Ezberdin izateak on egiten gaituela ondorioztatu dute eta horma-irudiaren bitartez mailako beste ikasleei ikasitakoa irudi eta hitzen bidez adierazi diete.

Proposatutako helburuetatik haratago ikerketan zehar emaitza interesgarriak jaso direla adierazi nahi da, hala nola, prozesuan zehar burutu diren dinamikei esker literatur lan askotan azaltzen den maitasun erromantiko kontzeptuaz ohartzeko zailtasunak dituztela aztertu da. Egun umeei irakurtzen dituzten liburuak ikuspegi androzentriko eta misogino batetik idatzi daude, printze (salbatzailea, indartsua...) urdinaren eta printzesaren (beldurtia, ezitia...) mitoaren antzeko mezuak helaraziz. Beraz, dinamikei esker ikasleei egoera matxista hauetaz ohartzen lagundu zaie, agertzen diren irudien analisi sakon bat eginez eta egoera kritikatzeko ikasiz. Hurrek txikitatik genero estereotipoak oso barneratuta izan arren, aurrera eramanean den proposamenaren bitartez konprobatu da, ikasleei ikusizko kulturak eta ingurukoek sexuaren arabera ezarritako neurriak zeintzuk izan daitezkeen azalduz gero, horiek identifikatzeko eta egun ematen diren egoerei kritika egiteko gai direla. Horregatik, irakasleok umeei egoerari aurre egiteko baliabideak/teknika desberdinak irakatsiz gero, haien sexu eta besteenarekiko garatu dituzten aurreiritziak aldatuko lituzkete, bakoitzak nahi lituzkeen arropak janzteko, jostailuak erabiltzeko, kirolak praktikatzeko... aukera izan beharko lukeela errespetatzeko gai direlako.

Proiektu didaktikoan zehar ikasleek gaiarekiko interesa zutela ikusi da, garatutako estereotipoez ohartzea eta emakume erreferenteen mural bat sortzea berria izateaz gain, beraiek propio artelan bat sortu dutelako eta hasieran zituzten estereotipo horien inguruan hausnartzeko eta beren izaera berritzeari denbora eskaini diotelako. Hurrek esku-hartze honek zituen helburuak eta aplikatutako metodologia ulertu dituzten/duten arren, lortu diren erantzunak gelako tutorearentzat material baliagarria izan da, etorkizunean ikasgaiaren arabera gai sakontzeko aukera ematen diolako. Hortaz, ikerketa honetarako diseinatu den unitate didaktikoa Lehen Hezkuntzan aplikatzeko baliagarria dela ulertu daiteke, mailaren arabera aurreko ataletan aipatu diren ekintzak moldatu behar diren arren.

Amaitzeko, lan honen xedea esku-hartze bat diseinatzera eta praktikara eramatera mugatzen ez dela adierazi nahi da, umeen erantzunak entzutea, behatzea eta ulertzea funtsezkoa delako. Era honetan, pentsamendu kritikoa sustatzeko, hausnartzeko eta entzuteko gaitasunak trebatzen dira, ikertzaile edota etorkizun hurbileko irakasle gisa garatuz eta ikasketa pertsonala izanez. Gainera, sozializazio-prozesuek ikasleengan duten eragina eskolarentzat arazo direla aipatu behar da eta, hortaz, hezkuntzak horren erantzukizuna hartu beharko luke. Inguruan dugun orok gizakiongan izan dezakeen eragina ikusita, eredu ez-normatibo eta errealean falta dugu eta eskolak hutsune horiek bete beharko lituzke, ikasleek baztertuak sentitu daitezkeen ikaskideen egoeraz kontzientzia izateaz gain lagundu ditzaten, egin nahi dutenarekiko beldur sentitu behar ez direla jakinaraziz.

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan honen bitartez, nire lehen ikerketa akademikoa aurrera eramateko aukera izan dut, proposatu dudan metodoa praktikara eramanez. Honi esker, argi ikusi dut teoriarik asten dena praktikan burutzeko arazoak sortu ditzakeela, hasieran planteatu dezakeguna edozein unetan zapuztu daitekeelako, hasieran planteatzen den denboraren kudeaketak aldaketak jasanez. Izan ere, *practicum* honek hiru hilabete iraun arren, generoan oinarritzen den proposamena aurrera eramateko denbora gutxi zegoela ikus zitekeen, ikasleek mailako helburuak garatzeko proiektuak martxan zituztelako eta egun bizi dugun egoerarengatik behin praktikak amaituta eskolara joateko arazoak egongo zirelako. Beraz, lanaren emaitzak denbora gutxian lortu dira, hasieran ikerketarako pentsatuta zegoen lagina gela bakar batera mugatzeaz gain, aztertutakoa beste emaitza askorekin alderatzeko aukera galduz.

Halaber, esku-hartzea prestatzeko erabili den prozesua konplexua izan da, unitate didaktikoa praktikan jartzeko tutorearen eta hezkidetzaren taldearen onarpena beharrezkoa izan delako. Eskola honetan, proiektu bidezko metodologian lan egiteaz gain, koronabirusa dela eta mailako gela guztietan tutoreak gai berdinak lantzerik behartuta daude. Beraz, ezin daiteke edozein jarduerak aurrera eraman beste hezitzaileek proposamena aurkeztu gabe, hau da, haien onarpena ezinbestekoa da berrikuntzak txertatu nahi direnean, nahiz eta denbora arazoengatik gainontzekoek inplementazioa aurrera eraman nahi ez izan. Gainera, ikasleek duten metodologi eta ordutegiaren ondorioz aldaketak eman dira, proiektu honek jarraikortasun egokia izan zezan. Hau da, lortu diren emaitzak prozesu baten ondorioz eman direla ikus dadin. Izan ere, LH 1B gelako ikasleek beste proiektu bat eskuartean zutenez, biak era egokian aurrera eramateko ahaleginak egin dira, hasieran ezarrita zeuden ordu eta jarduerak aldaketak jasanez.

Unitate didaktikoari denbora gutxiago eskaini nahi zitzaion arren, egutegi eta azken-orduko aldaketen ondorioz apirila amaierara arte ikerketarekin jarraitu behar izan da, proposatu den proiektua era egokienean garatzeko eta emaitzen bitartez aldaketak eman daitezkeen prozesu bat izatea beharrezkoa dela ikusteko. Paperean metodo eta jarduerak guztiak ondo zehaztu diren arren, eskolan eman diren ezustekoetara doitzeko beharrezkoa izan da, nahiz eta ikertzaile roletik prestatutako behaketa sistematikoak eraginak jasan dituen. Hortaz, genero estereotipoen agerpen eta ezabaketan lagun dezakeen unitate didaktikoa aurrera eramatea posible dela adierazi nahi da, betiere ikastetxean ematen den egoerara moldatuz.

Halaber, egun dagoen egoera dela eta proposatzen zen metodologia moldatu egin behar izan da, ikasleen artean lan-taldeak gutxitzeko. Izan ere, eskoletan koronabirusa ekiditeko martxan jarri diren protokoloen ondorioz, umeen taldekatzea mugiezina izan da eta

beraien artean gehiegi nahastu gabe ibili behar izan dira metodoan (5. atalean, 17. orrialdean) aipatzen diren jarduerak aurrera eramateko. Hauek egoerara moldatzeko gaitasuna erakutsi da, talde handian burutu nahi ziren ekintzak talde txikietan edota banan-banan aurrera eramanez, noizean behin jarduera aurrera eramateko txandak sortuz.

Amaitzeko, paregabea izan da irakasleek, tutoreek, ikasleek, gurasoek, hezkidetzak eta zuzendaritza taldeek proiektuaren ondorioz garatu dituzten *feedback* positiboak eta negatiboak entzutea, etorkizunean honelako beste ikerketaren bat aurrera eramateko indarra emateaz gain, hobekuntzaren bat egin behar ezkerro jarraibideak jaso ditudalako. Guztiak pozik aritu dira egindakoarekin eta gurasoek haien seme-alaben ahoetatik proiektuaren berri izateak zoriontsu egin nau, une oro haurrek garatu dituzten genero estereotipoen informazioa jakin nahi zutelako eta horri aurre egiteko jarrerak erakutsi dituztelako. Beraz, etorkizunean egindakoa martxan jarri ezkerro, gurasoen parte-hartzea kontuan hartuko nuke, gaiarekiko duten ikuspuntuaz eta etxeetan ematen den egoeraz ohartzeko.

Prozesu konplexua izan da, emakume eta gizonen arteko berdintasunean sinestea zaila delako, batez ere gizartea aldaketarako prest ez dagoelako. Hala ere, ingurukoak laguntzeko prest zeudela ikusteak proposamenean sinestera lagundu dit, eskolatik kanpo generoaren lanketa eman dela ikusi dudalako. Izan ere, ikasleek hasieratik jakin dituzte unitate didaktiko honen gaia eta helburua zeintzuk diren eta haien gurasoekin ikasitako kontzeptuak eta egindako marrazkien inguruan hitz egin nahi izan dute, familia giroan honen inguruan hitz egitea posible izateaz gain beharrezkoa ere badelako. Gurasoen parte-hartzea sustatzeaz gain, etorkizunari begira irakasleekin aurrera eramanez daitezken dinamikak sortuko nituzke. Gradua hasi nuenetik irakasleok gai honen inguruan formazioak jaso beharko genituzkeela ohartu naiz, estereotipoen garapena eskolatan ekiditeko eta etorkizun hobeagoa eraikitzeko.

9. BIBLIOGRAFIA

Alfonso, A. (2016ko irailaren 6a). *Realkiddys*. Coeducación en la vuelta al cole. <https://www.realkiddys.com/coeducacion-en-la-vuelta-al-cole/>

Alario, A. I. eta Anguita, R. (1999). ¿La mitad de la humanidad forma parte de la diversidad?: El sexismo en las aulas y la coeducación como alternativa. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 36, 33-43. Hemendik berreskuratuta: <https://www.aufop.com/aufop/revistas/arta/impresa/79/690>

Alvariñas, M. eta Pazos, M. (2018). Estereotipos de género en Educación Física, una revisión centrada en el alumnado. *Revista electrónica de investigación educativa*, 20(4), 154-163.

Basterretxea, J. I., Idoiaga, P., Ramirez de la Piscina, T. eta Zarandona, E. (2006). Estudio sobre la alfabetización audiovisual de los adolescentes vascos: Recopilatorio de actitudes críticas y acríicas. Hemendik berreskuratuta: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/40921/3732-13022-1-PB.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Barffusón, R.; Revilla, J. A. eta Carrillo, C. D. (2010). Aportes feministas a la educación. *Enseñanza de Investigación en Psicología*, 15(2), 357-376. Hemendik berreskuratuta: <http://docplayer.es/20794231-Aportes-feministas-a-la-educacion-female-contributions-to-education.html>

Benito, L. (2017). *Estereotipos de género en el dibujo infantil: Análisis y estrategias de intervención*. Universidad de Valladolid.

Castillo, M. eta Gamboa, R. (2013). La vinculación de la educación y género. *Revista Electrónica Actualidades Investigativas en Educación*. Hemendik berreskuratuta: <https://www.redalyc.org/pdf/447/44725654014.pdf>

Cevotarev, N. (2003). Familia, socialización y nueva paternidad. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 1. Hemendik berreskuratuta: http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1692-715X2003000200003

Chacon, P. eta Sanchez, J. (2013). La estructura familiar dibujada por los propios niños/as. Una aproximación al dibujo como mediador social en las relaciones sistemáticas familiares. *Revista Bellas Artes*, 11, 159-177.

Emakunde – Instituto Vasco de la Mujer. (2008). *Los hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades*. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/gizonduz_kanpainak/es_def/adjuntos/guia_masculinidad_cas.pdf

Eusko Jaurlaritz. (2019). *Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistamarako II. hezkidetza plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023*. Hezkuntza Saila.

https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=052381&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

Espinosa, M. (2000). *La construcción del género desde el ámbito educativo: una estrategia preventiva*. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

García, M. (2019ko apirilaren 9a). *Kidactica, Aprendizaje y Comunicación*. La importancia del dibujo en el desarrollo infantil. <http://www.kidactica.com/rincon-pedagogico/publicaciones/la-importancia-del-dibujo-en-el-desarrollo-infantil>

González, M. (d.g.). *Estilonext*. ¿Por qué a los hombres les gusta tanto el fútbol?. <https://estilonext.com/psicologia/por-que-hombres-les-gusta-tanto-futbol>

Jimenez, C. E., Mancinas, R. eta Martinez, Y . (2008). La sociedad del futuro: una mirada a través del dibujo infantil. *Perspectivas de la comunicación*, 2, 7-16. Hemendik berreskuratuta: <http://revistas.ufro.cl/ojs/index.php/perspectivas/article/view/29/24>

Laguna, M. C. eta Pardo, V. P. (2018). Visibilizando compositoras en el Tercer Curso de Educación Primaria (8-9 años). *Eco: Revista Digital de Educación y Formación del Profesorado*, (15), 128-142. Hemendik berreskuratuta: https://www.researchgate.net/publication/326299930_Visibilizando_compositoras_en_tercer_curso_de_educacion_primaria_8-9_anos

Manjarrés, Y. (2015). Dibujo libre y desarrollo infantil en las aulas de preescolar. *Experiencia investigativas y significativas*, 2, 125-132. Hemendik berreskuratuta: <https://experiencias.iejuliussieber.edu.co/index.php/Exp-inv/article/view/50/39>

Marañón, I. (2018). *Educación en el feminismo*. Barcelona: Plataforma Editorial.

Marín, R. (1988). El dibujo infantil: Tendencias y problemas en la investigación plástica de los escolares. *Arte, individuo y sociedad*, 1, 5-30. Hemendik berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=898182>

Míguez, M. (2015). De Blancanieves, Cenicienta y Aurora a Tiana, Rapunzel y Elsa: ¿qué imagen de la mujer transmite Disney?. *Revista Internacional de Comunicación y Desarrollo (RICD)*, 2015, vol. 1, nº 2, p. 41-58.

Olabarrieta, E. (1993). *Deporte y salud*. Eroski.

Pardo, V. P. (2017). Diagnóstico de la percepción del alumnado (3-12 años) de un centro educativo de Lucena (Córdoba, España) sobre la participación de la familia en las tareas del hogar. *Eco: Revista Digital de Educación y Formación del Profesorado*, 14, 80-107. Hemendik berreskuratuta: <http://revistaeco.cepcordoba.org/index.php/sumario-revista-eco-no-14/>

Pardo, V. P. (2018). Visibilizando deportistas femeninas en Cuarto Curso de Educación Primaria (9-10 años). *EmásF: Revista Digital de Educación Física*, (52), 65-78. Hemendik berreskuratuta: https://emasf2.webcindario.com/EmasF_52.pdf

Povedano, A.; Muñiz, M.; Cuesta, P. eta Musitu, G. (2015). *Educación para la igualdad de género. Un modelo de evaluación*. Madrid, España: Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud y FAD: Hemendik berreskuratuta: http://adolescenciayjuventud.org/que-hacemos/coleccion-documentos/ampliar.php/ld_contenido/112726/

Puleo, E. M. (2012). La evolución del dibujo infantil. Una mirada desde el contexto sociocultural merideño. *Educere*, 53, 157-170. Hemendik berreskuratuta: <https://www.redalyc.org/pdf/356/35623538016.pdf>

Reizabal, L. (2015). Genero berdintasunean hezteko gida. *Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat. UEU*.

Rigo, D. Y. (2014). Aprender y enseñar a través de imágenes. Desafío educativo.

Rodriguez, (2007). Principales modelos de socialización familiar. *Foro de educación*, 5(9), 91-97.

Sanchez, M. (2014). *Género, diversidades y diferencia en educación infantil primaria*. Madrid: Fundación 1º de mayo.


TEDx Talks (2017ko urriaren 10a). *Yolanda Dominguez, revelando estereotipos que nos representan*. [Bideo-fitxategia]. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=H1C-vG4yBML>

Varela, N. (2019). Simone de Beauvoir: "no se nace mujer, se llega a serlo". *Feminismo para principiantes*. Penguin Random House Group Editorial.


Vitoria-Gasteizko Udala. (2015). *Migrazioak eta terminoen zehaztasuna*. Hemendik berreskuratuta: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/41/42/64142.pdf>

10. ERANSKINAK

10.1. Arazoen zuhaitza



10.2. Helburuen zuhaitza



10.3. Zehar-konpetentziak

Oinarrizko **zehar-konpetentziak** bizitzako esparru eta egoera guztietan –esparru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan– arazo-egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak dira, bai diziplina-arlo guztietako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan. Arlo edo ikasgai guztietan orotara egindako lanaren bidez sustatu eta indartu behar dira zehar-konpetentziak, eta bizitzako esparru eta egoera guztietan integratu edo barneratuz eskuratzen eta erabiltzen dira.

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.
Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.
Elkarbizitzarako konpetentzia
Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonen aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.
Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezen.
Norbera izaten ikasteko konpetentzia
Bizitzako hainbat egoera eta esparrutan norberari sortzen zaizkion sentimenduez eta pentsamenduez hausnartzea eta norberak egiten dituen ekintzez gogoeta egitea, eta, horien gainean egiten den balioespenari erreparatuta, haiek sendotzea edo doitzea; finean, pertsonaren autorrealizaziorako bidea egitea bere dimentsio guztietan, etengabeko hobekuntzaren bidez.

9. taula. Oinarrizko zehar-konpetentziak (Eusko Jaurlaritza, 2020).

10.4. Unitate didaktikoa

Emakume erreferenteak

Proposatutako unitate didaktikoa aurrera eramateko eta ezarri ditudan helburuak kontuan izanik, ondorengo ekintzak antolatu dira.

Prozesuan zehar, metodologia aktiboak eta parte-hartzaileak jarriko dira martxan. Peñalvak eta Leivak (2019) aipatzen dutenez, hiru dira era honetan ikasteko moduak: berdinen arteko tutoretza, ikaskuntza kooperatiboa eta elkarlaneko irakaskuntza edo kolaboratiboa. Kasu honetan, ikaskuntza kooperatiboa erabiliko da, talde txikien irakaskuntzarako erabiltzen delako eta ikasleek elkarrekin lan egiten dutelako, irakasleak lanaren norabidea definituz.

1. ekintza: Mutil eta neska baten errepresentazioa

Ikasleei topagunean esertzeko eskatuko zaie, denbora eta ekintza aldaketak antolatzeko teknika aproposa delako. Gelatik mugitzen hasi ez daitezen, haien aulki aurrean eseriko dira eta, aurkezpenik egin gabe, jarduerari hasiera emango zaio.

- Prozedura: Ume bakoitzari orri bat banatuko zaio eta, mutil bat ekintza bat egiten errepresentatzeko eskatuko diet. Horretarako, argizarizko pinturak eta errotuladoreak erabiliko dituzte. Ondoren, neska bat marraztuko dute, aurrekoaren antzera, ekintza bat burutzen. Guztiek amaitu ostean, marraztu dituzten genero ezberdineko pertsona horiek haien ikaskideen aurrean aurkeztuko dituzte.

Jarduera burutzeko ordubeteko bi saio erabiliko dira: lehenengoa, genero ezberdineko pertsonak irudikatze; eta bigarrena, marraztutakoa aurkezteko.

2. ekintza: Komikia

Unitate didaktikoarekin jarraitzeko, 2009an Miriam Cameros Sierrak eta Nunila Lopez Salamerok argitaratutako *“Mariziprztinek ez du zorioneko galeperrik nahi”* liburua irakurriko zaie. Izan ere, istorio modernoa, errealista eta itxaropentsua izateaz gain, emakume askoren egoera erakusten du, zeinak noizbait deskubritzen duten bizitza ez dela sinestarazi zieten ipuin magikoen antzekoa.

- Prozedura: Liburua irakurtzen hasi eta noizean behin ikasleei galderak egingo zaizkie. Era honetan, irakaskuntza eredu tradizional magistrozentrista alde batera uzten da, praktika eta aktibotasuna ikaskuntzaren oinarritzat hartuz. Ipuinaren korapilora iritsi orduko, hau da, atalik garrantzitsuenera eta esanguratsuenera, istorioaren jarraipena haiei asmatzeko eskatuko zaie. Horretarako, orri bat banatuko

zaio bakoitzari, horretan, ipuinaren amaiera komiki gisa asmatu dezaten. Honen errepresentazioa, bisualki edo idatziz egiteko aukera izango dute.

Ekintza honetarako hiru saio eskainiko dira: lehenengoa, ipuina korapilora arte irakurtzeko eta egin beharrekoa azaltzeko; bigarrena, istorioaren jarraipena komiki gisa irudikatzen; eta azkenik, ipuina irakurtzen amaitzeko. Bakoitzak sortutako jarraipena edo amaiera tutoreari azalduko diote soilik.

3. ekintza: Nork egiten du zer?

Hasteko, ikasleak talde txikitan (hiru ikasle bakoitzean) eseriko dira, maiz, haien sexu berekoak diren hurrekin elkartzeko joera dutelako (ikasgelan eta patioan). Beraz, gainontzeko ikaskideekin nahasteko aukera aproposa izan daiteke.

- Prozedura: Talde bakoitzari orri bat banatuko zaio eta, horietan agertzen zaizkien ekintzak errepresentatu behar dituzte. Bigarren saioan, jarduerari amaiera emango zaio eta, horretarako, ikasleei topagunean esertzeko eskatuko diet. Eztabaida moduko bat egingo dugu; izan ere, arestian errepresentatutako ekintzak arbelean agertuko diren hiru gorputzetako batean jarri beharko dituzte: gizon, emakume edo hirugarren bat, genero batekoek zein bestekoek egiten dituzten ekintzetarako balioko duena.

Txartel guztiak itsatsita daudenean, arbelean ikusten dugunari buruzko hausnarketa labur bat egingo dugu.

4. ekintza: Lanbideak

- Prozedura: Ikasle bakoitzari orri bat emango zaio eta, horizontalki jarrita, lau zatitan banatuko dute. Koadro bakoitza lanbide bati dagokio: irakaslea, garbitzailea, medikua eta erizaina (batera doaz) eta suhiltzailea. Ondoren, aurrez ezarri zaizkien lanbide horiek irudikatzen eskatuko zaie, arkatzak, errotulagailuak eta argizarizko margoak erabiliz.

Ekintza burutzeko saio bat eskainiko da eta, amaitzean, osatu dituzten marrazkiak jasoko ditut.

5. ekintza: Emakume erreferenteen liburuxka

Hasteko, Elena Favillik eta Francesca Cavallok argitaratutako “*Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes*” liburuan oinarrituko gara azpimarratzea garrantzitsua da. Liburu honetatik aterako dira ikasleekin erabakitako emakumeak. Gainera, liburuxkan agertuko den

informazioa irakurritako testuengandik ekoizitakoa izango da, beraiek haien kabuz bilaturikoaz gain.

Halaber, informazio hori *google drive* plataforman sortutako dokumentu batean idatziko dugu, liburuxka egiterakoan inprimatzeko eta dagokion emakumearen orrialdean itsasteko. Idazten ari garen bitartean, liburuxkan agertu edota marraztuko diren irudiak eta marrazkiak haien artean aukeratuko dituzte.

Atal hau eginda, geure liburua sortzen hasiko gara: marrazkiak egiten, margotzen, argazkiak mozten eta orrietan itsasten, plastifikatzen... Horretarako, ikasleak talde txikitan banatuko dira eta bakoitzak (taldeak) ardura bat izango du.

Emakume erreferenteen liburuxka sortzeko bederatzi saio eskainiko dira: lehenengo bostak, emakumeen aukeraketa egiteko, testua irakurtzeko eta informazioa antolatzeko; eta azkeneko lauak, liburuxka osatzeko eta aurkezteko (irakurtzeko).

6. ekintza: Emakume erreferenteetan oinarritutako horma-irudia

Emakumeen Nazioarteko Eguna hurbiltzen ari zela, Madril inguruan suntsitu zituzten emakume erreferenteen hiru horma-irudiren ondorioz burutu nahi izan den ekintza da hau. Gaur egun, emakume erreferenteen irudi plastikoak (askoren ustez) ondo ikusiak ez daudela esan daiteke, jendeak apurtu egiten dituelako.

Horregatik, eta aurreko ekintza oinarritzat hartuta, ikasleekin batera horma-irudi bat egingo da. Era honetan, bi gauza egiaztatu ahal izango dira: ea aurretik zuten emakumeen irudi-grafikoa aldatu den eta ea ikasitakoa marrazki bidez azaltzeko gai diren.

Ekintza burutzeko 2 saio erabiliko dira, prebentzio neurriak kontuan hartuta hogeita bost ikasleek batera lan egiten egotea arriskutsua izan daitekeelako eta toki eskas dugunez ezinezkoa delako.

MUNDUA ALDATZEKO GARAIA IRITSI DA!!!!

10.5. Emaitzen analisia

10.5.1. Generoaren errepresentazio grafikoa




1. irudia. Mutil eta neskaren errepresentazioa (A ikaslea)



2. irudia. Mutil eta neskaren errepresentazioa (B ikaslea)




3. irudia. Mutil eta neskaren errepresentazioa (D ikaslea)



4. irudia. Mutil eta neskaren errepresentazioa (E ikaslea)




5. irudia. Mutil eta neskaren errepresentazioa (F ikaslea)




6. irudia. Mutil eta neskaren errepresentazioa (G ikaslea)



7. irudia. Mutil eta neskaren errepresentazioa (H ikaslea)



8. irudia. Mutil eta neskaren errepresentazioa (I ikaslea)




9. irudia. Mutil eta neskaren errepresentazioa (J ikaslea)

10.5.2. Mutil eta nesken errepresentazioa: ikonoen esanahia


Atal honetan, lehen jardueran ikasleek marraztutako gizon eta emakumeetan agertzen diren ekintzek duten esanahia adierazten da:

 FUTBOLEAN JOKATU	 LORE SORTA BAT EGIN	 PASEATU	 GLOBO BATEKIN JOLASTU
 SASKIBALOIAN JOKATU	 PANPINEKIN JOLASTU	 MUSIKA ENTZUN	 DANTZA EGIN
 BROKOLIA JAN	 ESKALATU		


10.5.3. Lanbideak generoaren arabera




10. irudia. Lanbideak (A ikaslea)



11. irudia. Lanbideak (B ikaslea)




12. irudia. Lanbideak (D ikaslea)



13. irudia. Lanbideak (E ikaslea)

10.5.4. Etxeko zereginak generoaren arabera



14. irudia. Nork egiten du zer? (ariketaren emaitzak)


10.5.5. Emakume erreferenteetan oinarritutako horma-irudia



15. irudia. Ikasleek emakume erreferenteekiko sortu duten murala

10.5.6. Emakume erreferenteak

Ikasleekin bat emakume erreferenteak lantzeko sortu zen material didaktikoa (osatu gabe):



16. irudia. Emakume erreferenteen liburuxkaren azala

Kleopatra



17. irudia. Kleopatra

Marie Curie



18. irudia. Marie Curie

Serena eta Venus Williams



19. irudia. Serena eta Venus Williams

Grace O'Malley



20. irudia. Grace O'Malley

Ashley Fiolek



21. irudia. Ashley Fiolek

Helen Keller



22. irudia. Hellen Keller

Frida Kahlo



23. irudia. Frida Kahlo

Isabel Allende



24. irudia. Isabel Allende

Hipatia



25. irudia. Hipatia

Zaha Hadid



26. irudia. Zaha Hadid



Emakume Erreferenteak

1. Kleopatra
 2. Marie Curie
 3. Serena eta Venus Williams
 4. Grace O'Malley
 5. Ashley Fiolek
 6. Hellen Keller
 7. Frida Kahlo
 8. Isabel Allende
 9. Hipatia
 10. Zaha Hadid
- 

27. irudia. Emakume erreferenteen liburuxkaren amaiera